



6€ **EUSKAL HERRIKO** *Natura*

160
ZENBAKIA 2026ko URTARRILA-OTSAILA



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundua

ZANKALUZE BELTZA
IBIS EREMUTARRA

ARRANO IMPERIAL
IBERIKOA
KALIFORNIAKO
KONDORRA
OKILA IMPERIALA
SAXONIAKO
ERREGEAREN
PARADISUKO
HEGAZTIA
KAGUA

SEYCHELLE
UHARTEETAKO
TXORI JOSTUNA
SASINESTORRA
BASOILARRA
KETZALA

MUNDUKO HEGAZTIRIK
MEHATXATUENAK

ESPECIES EXÓTICAS INVASORAS-ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK
HORIEK SARTZEA EKIDIN!



Bisoi amerikarra



Panparen lumaduna



Floridako dortoka



Karramarro gorria



Liztor asiarra

araba álava
foru aldundia diputación foral

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA
DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU



EUSKAL HERRIKO
NATURA

DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA
ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

160.zk - 2026ko URTARRILA-OTSAILA



Munduko Hegaztirik Mehatxatuenak

Nene antzara.....	4
Zankaluze beltza.....	5
Galapago uharteetako hegogabeko ubarroia.....	6
Kurlinta eskimala.....	7
Ibis erremutarra.....	8
Ibis nipondarra.....	9
Guan adartsua.....	11
Abboteko pikeroa.....	12
Amerikako kurriloa.....	14
Lepo beltza duen kurriloa.....	16
Gandorra duen argoa.....	17
Javako hegazterrena.....	18
Basoilarra.....	19
Kagua.....	20
Saxoniako erregearen paradisuko hegaztia.....	22



Okinawako okila.....	23
Sasinestorra.....	24
Okila inperiala.....	25
Bolizko mokoa duen okila.....	26
Txori jostuna.....	27
Puerto Ricoko amazona.....	28
Hiazinto guakamaioa.....	30
Kakapoa.....	31
Lurmutur hiriko pinguinoa.....	34
Ketzala.....	36
Arrosa-koloreko usoa.....	38
Kardinal txikia.....	39



Seychelle uharteetako robin mika.....	40
Madagaskarko pigargo.....	41
Ohiularia.....	41
Kaliforniako kondorra.....	42
Arrano inperial iberikoa.....	44
Arrano monera filipinarra.....	46
Galapago uharteetako zapelatza.....	47
Buztan zuria duen pigargoa.....	48
Harpia.....	50



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Ruben B. Caballero.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtear, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Jon Lopez.
Kepa Murua, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilaritza-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Fernando Pedro Pérez.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 Aleak: 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: 688852212. e-maila: adeve1991@gmail.com

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkartea.




EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkartea
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa, 56-71 cm artean dago
Pisua: 1920-2215 gr artean dago
Habitata: sumendietako mendi-mazeletan, sakabanatutako landarediarekin, 1500-2500 m-ko altituteetan
Banaketa: Hawaii eta Maui uharteetan.
Lekualdaketak: oinarritzoki sedentarioa da animalia hau, herriko lekualdaketak bakarrik egiten ditu eta eskala txikian.



NENE ANTZARA

(BRANTA SANDVICENSIS)

Hawaii uharte-
etako hegazi
endemikoa da
Nené antzara edo
branta; zehatzago
esanda, Hawaii

uhartekoa (Isla Handia), nondik jatorrizkoa baita, eta Maui uhartekoa, non sartuta izan baitzen. Gehien gustatzen zaizkion habitatak 1500-2500 m-ko altituteetan dauden isurialde bolkanikoetako labazko koladak dira; dena den, belardiak dauden lekuetara ere joaten dira.

Bere elikadura zeharo belarjalea da: belarrak, sastrakak, baiak (leponenéaren landarekoa), hostoak, ernamuinoak, ihien alde berdeak eta ur asko duten landareak jaten ditu. Normalean, lurzoruan jaten du, horretarako bere habitatako landaredi gutxi bazkatzen eta mokutzen du. Espezie sedentarioa da. Antzara motako honen ugalketa urrian edo azaroan hasten da. Bikote isolatuak eratzen dituzte eta lurzoruko sakoneetan habiak egiten dute, labazko lauzen artean edo landaredi gutxiren eta barbanaren artean. Gero lumatxaren bidez estaliko dute.



Inkubazioak 29 egun inguru dirau. Emeak 3-5 arrautza inguru ezartzen ditu. Txitak jaiotzean, nabar-koloreko lumatzaz eta zuri-koloreko orbanek estalita agertzen dira (batez ere beheko aldean). Lumen garapena 10-12 asteren barruan gertatzen da eta txitek bi edo hiru urte arte ez dute lortuko heldutasun sexualik.

Nené antzara Hawaii uharteko hegazi nazionala da, non kolonizazio europarra gertatu baino lehen oso ugaria zen. Lehenengo europarrak arxipelagora ailegatu zirenean 25.000 ale inguru zeuden. Baina handik aurrera, antzarak ehiza egiten zituzten gelditu gabe. Kolonoek, txakurrek, txerriek, katuek eta arratoiek oso azkar populazioa basatiak eratu zituzten eta defentsarik gabeko antzarrek jateari ekin zioten. Egoera larri hau gehiago areagotzeko, XX. mendearen hasieran, mangos-
ta indiarra sartu zen arratoiengatik ugaltearen aurka borrokatzeko, baina gero eta okerrago izan zen, izan ere, arrautzen eta kumeen arteko heriotza-tasa handiagoa izan zen.

1950. urtean, 34 antzara bakarrik bizirik geratu ziren, eta haie-
tatik hamazazpi gaitubaldian bizi ziren. Zorionez, 1918. urtean, beren populazioak, era kezkagarri batez, txikitzen ari zirenean, Herbert S. Shipman Hawaii uhartean jadanik antzara berezi hau hazten hasi zen. 1949an, agortzeko zorian zuenean, hegaztiak Wildfowl eta Wetlands Trust (Anatidoen eta hezegunetako trustak) Shipmanen kausarekin ados egon ziren eta Britania Handian Nené antzara-hazkuntza hasi zen, gero egoera basatira eramango zituzten. Garai bere-
an, Hawaii Division of Fish and Game (Hawaii uharteko Ehiza eta Arrantza Zuzendaritza Nagusia) antzeko pro-
grama hasten ari zen.

1960-1976 urteetan, gaitubaldian egin zituzten hazkuntza-
programa horiek (hauei hirugarren programa gehitu behar die -Litchfieldekoa -Connecticut- leinu kementsua lortu zuten naturara berriro itzultzeko, horregatik 1400 antzara inguru lortu zituzten). Baina, nahiz eta beren bizirapena -
hein batean- onesgarria izan, ezin izan ziren ugaltu eta gaur egun naturan bakarrik 350 ale daude.

UICNek bere Zerrenda Gorrian "espezie kalteberatzat" hartu du eta CITESek bere Lehenengo Gehigarrian sartzen du.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa, 38 cm-koa da.
Pisua: 200 gr pisatzen du
Habitata: errekek, lakuak eta istingadiak
Banaketa: Hegoaldeko uhar-
tea, Zeelanda Berria.



ZANKALUZE BELTZA

(HIMANTOPUS NOVAEZELANDIAE)

Bere izenak esaten duenez, zan-
kaluze beltzaren ilajea beltza
edo azaba-tze-kolorekoa da. Bere
mokoia ere beltza da eta hankak arrosa ilun-kolorekoak dira. Abozetak ez bezala, zankaluze bel-tzen mokoak zeharo zuze-
nak dira eta ez gorantz makurturik -abozeten moduan-. Sexuen artean ia ez dago desberdintasunarik, eta zankaluze beltzen artean hautemanezinak dira.

Espezie hori ibaietako eta lakuetako ertz lohitsueta joan ohi da eta alde idotsuak nahiago ditu; han, intsektu txikiak, krus-
tazeoak, moluskuak eta beste ur omogabe batzuk jaten ditu. Horretarako, bere moko zorrotzarekin bai urtean bai lupetzan mokokatzen du. Bere hanka luzeei eta finuei esker sakonera handiko uretan elikagai bila dezake.

Zankaluze beltzak lurtean bere habia egiten du, ibaietako ert-
zetako errekarrien artean. Emeak bat edo bi arrautza ezar-
tzen ditu. Gero bai arrak bai emeak txitatzen dituzte, baina hau egitea oso zaila egiten zaie, izan ere, hankaren tamaina han-
dia da. Inkubazioak 22-26 egun artean dirau. Eklosioa gertatu bezain laster, txitoek habia bertan behe-
ra uzten dute, baina gurasoen babesaren menpean geratzen dira, hegaz egiten ikasi arte, baita denbora gehiago ere.


Abozeta beltzaren habiak oso kalteberak dira harraparietzat,



hodoentzat batez ere. Lehenengo kolonizatzaileak hodoak era-
man zituzten Zeelanda Berrira. Hau dela kausa zankaluze bel-
tza espeziaren murrizketa. Gaur egun bakarrik 60 ale geratzen

dira Waitaki ibaien goi-ibilbidearen haranean (Hegoaldeko irla), alde horrek 7000 km2 inguru ditu. Zorionez, Zeelanda Berriko gobernuak neurri zorrotzak hartu ditu animalia horren kontserbaziorako: errunaldia gertatu bezain laster, arrautzak hartuta dira eta beren lekuan zerkamikazko kopiak uzten dituzte. Gero, inkubagailu berezietan sartzen dituzte eta eklosioa egiteko zorian daudenean berriro har-
tzen dituzte eta benetako habian kokatzen dituzte. Dena den, zankaluze beltzak bizirik jarraitzeko gauza gehiago egin behar da, adibidez, erabateko babesa izan ezik, etengabeko jazarpena ere. Beren populazioen eskasiak gaineratutako arazoa planteatzen du: zankaluze arruntaren hibridazioare-
na (Himantopus himantopus), horrek genetika-gale-
ra oso arriskugarria ekartzen du.

UICNek "arisku larrian dagoen espezieetat" har-
tzen du.



Tamaina: animaliaren luzera osoa, 89-100 cm ingurukoa (batez beste 95 cm).
Habitata: itsasokoa. Kronwell-lasterreko azaleratzeetan jan ohi du. Kostalde arroksatu eta esku-ragaitzetan habia egiten du.
Banaketa: Fernandina eta Isabel uharteetako iparraldean eta mendebaldean (Galapagoetako artxipelagoa) egon ohi da.
Lekualdaketak: zeharo sedentarioa da. Ale gazteek ere ez dira joaten.



GALAPAGOS UHARTEETAKO HEGOGABEZKO UBARROIA

(PHALACROCORAX HARRISI)

Galapagos uharteetako ubarroia fami-
liako beste espezie guztietatik desberdintzen da bere hegalaetik, izan ere, hain txikiak dira ezen ezin duen hegaz egin. Bere burua oso handia da eta hau da kausa urte askotan zehar, genero independente batean sartu zuten -Nannopterum generoa-, Honek guztiak lortzen du Galapagos uharteetako

ubarroia nahastezina izatea. Osterantzean, arrak emeak baino askoz handiagoak eta astunagoak dira, eta beren mokoa ere handiagoa da. Gazteen lumajea helduenarena baino beltzagoa da eta irisa nabarra da.

Galapagos uharteetan bakarrik bizi da, non mankon ubarroia esaten diote. Ur hauetatik ibiltzen diren urak, edo zehazki, Kronwell-lasterrek aberastasun biologiko handia lortzen duten uretan. Hau dela kausa, ubarroi honen arrantza-lurraldeak dira. Ubarroia bere harrapakinak har-tzen ditu urpean. Normalean espezie bentikoak harrapa-tzen ditu, esate baterako, olagarroak, aingirak, txibiak eta hondo arroksuetako beste arrain batzuk. Ubarroiek hazkuntzarako kolonia txikiak eragin ohi dituzte -12 ale arte-, batzuetan urtean bitan ugaltzen dira. Kostalde arroksuetan beren habia handiak egiten dituzte, justu mareen puntu gorenean eta beti ez dute hurrengo urtaroen egiten. Hazkundera gertatu ondoren, bikoteak desegin ohi dira, hurrengo urtaroen elkartasun berriak egiteko. Emeak 1-4 arrautza inguru ezartzen ditu eta inkubazioak 35 egun inguru dirau. Inkubazioan, sexuen bateko bestearen lekuan kokatzen denean, algak ematen diote bikotearen loturak indartzeko. Txitak lumarik gabe jaiotzen dira eta oso goiz beltz-koloreko lumatxa garatzen dute. Bi hilabeteko kumeei lumak hazten zaie eta gurasoek zaintzen dituzte lau hilabete gehiago. Hazkuntzaren azken garaian, arrak bakarrik janaria ematen die, emea, berriz, berrito ugaltzen saiatu da. Emeek bi urte dutenean, heldutasun sexuala lortzen dute eta arrek geroago lortuz. Espezie honen ugalketaren arrakasta ez da oso handia, honek parte batean, bere beherakada azaltzen du. Nahiz eta batzuetan emeak arrautza gehiago ezarri, bi bakarrik eklosionatzen dira eta habien %74tan kume batek bakarrik bizirik jarraitzen du lumen garapenera arte.




Normalean, espeziaren ugalketaren arrakasta -janaria falta ez izatekotan-, 0,6 txitakoa da -luma garatuekin habiagatik-.

Hegaz egiteko ezintasunak, hegazti hauen mugimen-duak asko mugatzen ditu. Ondorioz, sedentarioak dira eta ez dira hedatzen. Bi irlen arteko ibilaldiak eta popula-zionen trukeak oso bitxiak dira.

Galapagos uharteetako hegogabeko ubarroia espezie bitxia da, baina nahiz eta gora behera asko egon, popu-lazioak, oro har, egonkorak dira. 1962. urtean, populazio osoa 3000-5000 aletakoa zen, baina hurrengo txostenen arabera zifra hori gehiegizkoa zen. UICN-ek egin zuen lehenagoko Liburu Gorrian, 1000 ale inguru zeuden 1965ean, dena den, ebaluazio zehatzagoa izan behar zuela esan zuen. Nola nahi ere, zenbaki hauek ez zeuden errealitatekin oso urrun, izan ere, 1985. urtearen amaieran populazio osoa 900-1200 ubarroitakoa zen. Beren populazioek arazo batzuei aurre egin behar izan zituzten, alde batetik sartutako animaliek ubarroiaren artean beherapen handiak egin zituzten, esate baterako, txakur basa-tiak. Gaur egun txakur hauek agortuak izan dira, baina petrolio-isiuriak eta sareak helduen populazioak murrizten ari doaz.



Klima-bariazioek, El Niñoren fenomenoak batez ere, popula-zioaren kopuruan bariazio handiak egiten dituzte, izan ere, hel-duen heriotza sortu ez ezik, ugalketa saiatu ere. UICNek, "Espezie kalteberatzat" hartzen du bere Zerrenda Gorrian.



Tamaina: bere luzera osoa, 29-34 cm-koa da.

Habitata: tundra artikoa -haz-kunde-garaian-, migrazioan zehar belarrez, estalitako belar-dietan, larreetan, itsasertzetan. Neguan, panpetan.

Banaketa: Kanadako ipar-men-debaldean habia egin du edo egi-ten du (Mackenzieko ipar-mende-baldera), eta segurki mendebal-dera, Norton Sounderaino (Alaskako iparraldean).

populazio osoa 50 ale besterik ez izatea. 1980. urtetik ez da kurlintarik ikusi, eta agian agortuta dago, eta bizirik jarraitzeko-tan, bere populazio hain txikia da ezen epe laburrean bere bizi-raupena mehatxatua baitago.

Antzinean, kurlinta eskimal asko zeuden. XIX. mendearen amaierara arte, kurlinta-saldo asko ikus zitezkeen, haietako bat 1,5 km-ko luzera eta metro bateko zabalera izatera ailegatu zen. Migrazioan zehar ehunka hegazti hildak izaten ziren, bidai luze hori Labradorko hegoaldea, Eskozia Berri, Ingalaterra Berria, Mississippiko haran gainetik egiten zituzten, Hego Konoan zeuden neguko kuarteletarantz joateko. Animalia

KURLINTA ESKIMALA

(NUMENIUS BOREALIS)



Munduko
hegazti
mehatxatueneta-
riko bat da kurlin-
ta eskimala.

Posiblea da bere
populazio osoa 50 ale besterik ez izatea. 1980. urtetik ez da kurlintarik ikusi, eta agian agortuta dago, eta bizirik jarraitzeko-tan, bere populazio hain txikia da ezen epe laburrean bere bizi-raupena mehatxatua baitago.

hauek oso hegazti taldekoiak eta oso fidagarriak ziren, horre-gatik ehiztariantzat hegazti errazak ziren, hauek beren urteko pasagunea itxaroten zuten: Eskozia Berrian, Newfoundlanden eta Labradorren.

1850-1890 urteetan triskantza asko zeuden eta agian, 1863. urtean, Nantucket uhartearen errekorra gertatu zen: egun bakar batean 7000 kurlinta eskimal hil zituzten. Ondorioak oso goiz etorriko ziren, 1897. urtean, Halifaxko merkatuan azken ale saldu zen (Eskozia Berrian), eta 1912. urtean Labradorren azken aleak ikusi eta hil zituzten.

XIX. mendearen amaierako hondamendiek, dudarik gabe, espeziarekin bukatu zuten. Baina Ipar Amerikako eta Argentinako panpako larreek jasan dituzte aldaketak, arazo larriak dira kurlinten populazioak berreskuratzeko.

UICNek "arisku larrian dagoen espezieztat" hartzen du eta bere Zerrenda Gorrian ikus dezakegu, gainera bere benetako bizi-tza zalantzan jartzen du.



Tamaina: bere luzera osoa, 70-80 cm ingurukoa da. Hegoa 125-135 cm-ko luzera du.

Habitata: lautada idorretan eta erdilehorretan, goi-lautada arro-katsuetan eta aldapatsuetan, soro landatuetan, larreetan eta altuera handiko belardietan bizi ohi da.

Banaketa: Maroko eta Argelia, Saharako hegoaldea eta mende-baldea. Dirudienez, gaur egun, Marokon bakarrik habia egiten du. 1989an Turkiako populazioa agortuta zegoen, baina txosten berriek intsinnatzen dute Arabiako hego-mendebaldean eta Yemenen, kolonia ezezagunak daudela.

Ibis erremutarra, familia honetako espezie bakarra da, eta habitat lehorretan bizi da, adibidez, “wadi”-en hondo idorrek (beti lehorrik dauden ibaiak), aldapa harrokatsuak dituzten aldeak, soro idorrek, larreak eta altuera handiko belardiak.



Hantxe, narrastiak eta lehorreko intsektuak (matxinsaltoak, oti berdeak, kakalardoak, ipurtsardeak, inurriak, beldarrak, arrabioak, barraskiloak, zizareak, zapaburuak, arrainak eta armiarmak) jaten ditu. Batzuetan, ugaztun txikiak, arrautzak eta txitak ere jaten ditu, baita haratustela ere.

Lurzoruan egiten ditu harrapaketan, eta horretarako bere moko luze eta makurtua erabiltzen du. Arroketako arrailetan eta pitzaduretan sartu ohi da, edo harrien azpian, lurraren eta harearen artean. Arrunki, bere dieta animalietan oinarritzen da, baina ernamuinetan, uretako errizometan eta beste materia begetal batzuetan ere elikatzen da.

Espezie taldekoa da. Bikoteek inoiz ez dute habia egiten bakartasunean; normalean, koloniek 3-40 ale inguruko taldeak osatzen dituzte. Otsailaren erdian, ugalketa hasten da, fotoperiodoaren gehipenarekin, tenperatura eta hezetasun erlatibo. Erakusketa-geraldiak oso garrantzitsuak dira: alde batetik, bikotearen arteko harremanak indartzeko, eta bestetik, jokaeraren garapena eta koloniako beste hegaztien estimulazio sexuala lortzeko.

Martxoaren eta otsailaren artean, emeak 2-4 arrautza ezartzen ditu (gutxitan 1-5 edo 6 arrautza ere ezartzen ditu). Inkubazioak 24-28

egun inguru dirau. 43-47 egunetan, txitak lumak ateratzen zaizkie, eta hiru urte betetzean heldutasun sexuala lortzen dute. Arrakasta ugaltzailea 2,5 txita ingurukoa da cada habia.

Duela 5000 urteko hieroglifiko zaharretan, ikus daiteke gurtutako ibisa ez zela ibis sakratua (*Threskiornis aethiopicus*), baizik eta ibis erremutarra. Mende batzuk geroago, ibisaren izaerak Niloaren ur-goraldiei lotu zienean, lehenengoak azkenaren lekua hartu zuen. Geroago, 1555ean, Konrad Gessner-ek bere Historia Animalium liburuan hegazti bat deskribatu zuen: “Hegazti hau oiloa baino handiagoa da, bere lumajea beltza da, aurpegi biluzik eta moko luzea du.” Hegazti hori eguraldi onarekin etorri ohi zen eta Suitzako mendietan eta Erdialdeko Europan habia egiten zuen. Doktore suitzarrak “basoko erroia” deitu zion, eta bere haragiaren zapore ona laudatu zuen baita habian harrapatutako txiten haragiarena ere.

Gessner-en liburua argitaratu ondoren, animalia horren jazarpena hasi zen, bere ospe gastronomikoagatik batez ere. Baina bere kopuruaren murrizketan beste fenomeno batzuek eragina izan zuten, adibidez, goi-mendiko larren luberriketa, non janaria bilatzen baitzuen, eta etengabeko klima-hoztea. XVII. mendearen amaieran, jadanik Europatik desagertuta zegoen, eta gero ahaztuta izan zen. Mende bat geroago, Gessner-en asmakizun bat besterik ez zela pentsatzera ailegatu ziren. Baina XX. mendearen hasieran, Afrikako iparraldean eta Ekialde Hurbilean aurkitu zenean, bere itxura eta Gessner-en “basoko erroia” antzekoak zirela konturatu ziren. Dena den, elkarte zientifikoak ez zion kasurik egin, Suitzako Alpeetan erdifosilizatutako espejimenen aurkitu arte. Orduan konturatu ziren hegazti bera zela.



Frogaketa honek amaiera ekarri zion espezieari, izan ere, handik aurrera Europako bildumagile eta museo guztiek espejimen bat lortu nahi zuten. Alde askotako koloniak desagertu egin ziren triskantzagatik (gehienak Argeliako eta Siriako aldeak izan ziren). Hurrengo urteetan, ezbeharra horri gaineratu behar diogu, bere jatorrizko lurra soro bihurtzen zirela, pestizidak ugaltzea, eta lehorte-garaiak gehitu zirela. Ondorioa goiz etorriko zen: 1950ean, kolonia txiki bat besterik ez zen geratzen Ekialde Hurbilean, beste bat Argelian eta Marokon. 1930. urtean 1000 bikotetatik 210 bikotetara pasatu zen 1975. urtean. Gaur egun, 220 ale inguruko populazioa dago, eta Marokoko etorkizuna oso itxaropentsua da. UICNek “arisku larrian dagoen espezieetat” hartzen du eta CITESek Lehenengo Gehigarrian sartzen du.

Ibis nipondarra oso hegazti eder-rra da. Bere lumajea zurizkoa da, arrosa-laranja-koloreko ñabardura batekin buztanean eta hegale- tan. Bere aurpegi-maskara eta hankak gorriak dira. Bere moko beltza da eta tontorrean gorri-kolorekoa. Luma zurizko gandor bat du garondan eta pileoaren atzeko aldean.

Dena den, hazkuntza-garaian, lumajearen zuritasuna gris bihurtzen da, eta animalia hain desberdina da garai horretan (araldia), ezen zientifikoek beste arraza batetik (sinensis) zela pentsatu zuten.

Beste ibis batzuek bezala, lohia- ren artean edo uretan elikadura bilatzen du, han mokoka, arrain txikiak harrapatzen ditu, esate baterako, mazkarrak, karpak, bagreak, anfioioak (uhandreak, arrabioak), ibai-kar- marroak, moluskuak eta uretako intsektuak.



Ibis nipondarra egunero kilo-erdia jaten du, hori kopuru handia da, eta hau dela kausa estrategia batzuk garatu behar izan zituen janaria lortzeko, adibidez, miaketak esploratzeko, eta janariaren bilaketa soziala: ibis nipondarra egunez jaten du,



Tamaina: animaliaaren luzera osoa, 55-78,5 cm ingurukoa da.
Habitata: ibaiak, urmaelak, lakuak, errekek, istingadiak, arroz-soruak eta beste laborantza batzuetan, basoz inguratutako mendietan edo zuhaitz handietatik gertu, hegaztiak lo egiteko edo habia egiteko erabiltzen ditu.
Banaketa: antzinean, Asia kontinentaleko ipar-ekialdetik eta Japoniatik banatuta. Gaur egun, ezagutzen den populazio bakarra Quinling mendietan bizirik jarraitzen du. Normalean, 875-1150 m-ko altuerara ikus daitezke. Shantxi probintzian ere dago (Txinako ipar-ekialdean).
Lekualdaketak: Naturan bizirik jarraitzen duten espezie bakarrik Txinako erdialdean daude. Siberiakoek, Txinako iparraldekoek eta Mantxuriakoek, Txinako hego-ekialdean eta Hainanen hibernatzen zuten. Japoniako erdialdekoak sedentarioak ziren eta Honshuko iparraldekoak eta Hokkaidoko mendealdekoak Hegoalderantz - Ryukyu uharteetaraino- joaten ziren.



ibis-saldo txikiak eratuz, antzinean handiagoak zirela ematen zuen, izan ere, XIX. mendean ikusi zen ibis-saldoak 50 ale baino gehiago zituela. Egun, munduko hegaztiak bitxiena eta mehatxatuen da.


Populazioaren murrizketa etengabeko deforestazioa dakar, izan ere, egurra behar dute etxeak egiteko eta etxeak berotzeko. Honek zuhaitz handien desagertzea ekarri zuen eta orduan hegaztiak ez zuten lekuri hahiak egiteko edo gaua pasatzeko. 1981ean, Japonian ibis nipondarra behin betirako agortu zen, edo espezie basatitzat gutxienez.

Txinan, 1930. urtera arte, espeziea nahiko ugaria zen baina pixkanaka-pixkanaka murrizten ari zen eta 1960. urtean zeharo desagertuta geratu zen. 1978. urtean, Txinako Zientzi Akademiako Zoologia-Ikerketako Institutuak espeziearen bila-

keta zorrotzari ekin zion, horretarako 50.000 km eta 13 probintzia ibili zituen. 1981ean, Shanxiko probintzian 7 ale aurkitu ziren, eta haien artean bi bikote ugaltzaile zeuden, honek itxaropenak ematen zituen.

Aurkikuntza gertatu ondoren, Txinako gobernuek ibis babesteko santutegi bat ezarri zuen, eta ikerketak jarraitu zituzten. Ikerketa zorrotz hauekin amaitu ondoren, 1989. urtean 46 hegazti zeuden.

Gaur egun, herriko aginpideak eta WWFko espeziearen kontserbazioarako programak egiten ari dira Txinan eta Japonian, eta Beijingko zoologikoan (Txina) hazkuntza- eta berreskuratze-gunea ezarri da (gatibualdian lortzeko), helburutzat naturara eramatea, egin ahal denean. UICNek "arriku larrian dagoen espezie" hartzen du eta CITESek I. Gehigarrian aipatzen du.



Tamaina: bere luzera osoa, 76-90 cm-koa da.
Habitata: mendiko baso ezkoak (1600-3000 m-ko altuerara).
Banaketa: Txiapasko estatua (Mexikoko hegoaldeko tontorrean) eta Guatemalan.
Lekualdaketak: sedentarioa da.



Bere izenak esaten duen bezala, guan adartsu helduak bere kopetan gorrimin-koloreko adar bitxia erakusten du (6 cm-ko luzera). Bere hankak gorriak, luzeak eta gogorrak dira. Bere jantzian kolore beltza eta zuria ikus daitezke. Goiko aldean beltz-kolorekoa dago, baina urdin eta berde ilun-koloreko ñaburdurekin, mika arruntetan bezala. Bi sexuak antzekoak dira, biek adarra dute. Gaztea eta heldua antzekoak dira, baina gazteen adarra txikiagoa da eta beren kolorea ez da bezain argia. Zuhaitz-espeziea da, oihan trinkoetan eta hezeetan bizi da (1.600-3.000 m-ko altuerara); Guatemalako mendietan eta Mexikoko hegoaldean bizi ohi da. Paujileak eta txatxalakak ez bezala, guan adartsua ez doa lurrera, edo behintzat, gutxitan. Zuhaitzen artean ibiltzen denean, oso arina da, baina bere hegaldia oso astuna eta ahula da, planeatzeko motzak erabiltzen ditu.



ek esaten dute 1965. urtean, hainbeste guan adartsu zeuden ezen harrika eta kolpeka hiltzen zituzten. Lehenengo aldiz, Suaren sumendian zientifikoki ikusita izan zen (Guatemalan). Geroago, Santa Ana de la Lagunan, El Triunfon eta Takana Sumendian (Txiapas/Mexiko) ikusi zen animalia hori. Beraz, populazio horiek oso hedaturik zeuden, alde bakoitzean populazio reliktak zeuden eta bata bestekin ez ziren nahasten, hau zela

kausa endogamiaren arriskuan zeudela. Geroago, 1968. urtean, ICBP (International Council for Bird Preservation), edo Hegaztien Babesterako Nazioarteko Batzordeak, beste herri batzuetan animalien agerpena aipatu zuen eta baieztatu zuen, populazio reliktak pentsatzen zena baino ugariagoak zirela. Baina ICBPek, bere aldetik, hain populazio zatituen arriskuei buruz hitz egiten jarraitu zuen eta populazio guztiak agortzeko zorian zeudela pentsatzen zuen (UICNaren Bigarren Liburu Gorria, 1968ko ekaina).

1965. urtean, ICBPek iradokizun nagusia egin zuen El Triunfo aldean 1000-2000 ha utzi behar zirela guan adartsua, ketzala (*Pharomachrus mocinno*) eta txatxalaka beltza (*Penelopina nigra*) babesteko (baso hodeitsu berean bizi zirenak). Gaur egun, UICNek "arriku dagoen espezie" hartuta dago, eta 2002ko Zerrenda Gorrian sartuta dago.





Tamaina: bere luzera osoa, 79 cm-koa da.

Habitata: itsaso irekian jaten du. Basoko zuhaitz altuetan habia egiten du, baita Christmas uharteko erdialdeko goi-lautadan ere.

Banaketa: Christmas uhartean (Sumatrako hegoadler, Indiako Ozeanoan) bakarrik habia egiten du.

Lekualdaketa: helduak, oinarritzoki, sedentarioak dira, baina batzuetan oso hegaldi luzeak egiten dituzte janaria bilatzeko. Normalean, gazteak eta ez-ugal-tzaileak itsaso zabalean daude, gehienak Java uharteko hegoadler.

Abbotteko pikeroa ez da zanga arrunta edo Atlantikoko zanga (*Morus bassanus*) bezain handia, baina bere lumajea marroi ilun kolorea eta zuria ikus daitezke. Hegalak luzeak eta



ABBOTTEKO PIKEROA

(*PAPASULA ABBOTTI*)



estuak dira, edozein pikero edo zanga baino luzeagoak eta estuagoak. Dimorfismo sexual samarra dago: emearen mokoa arrosa da, eta arrarena, oster, gris-urdinxka. Familia-ko beste espezie batzuek ez bezala, sexu biek moko pixka kakoduna dute eta oso lerro zerradunak dira.

Nahiz eta hegazti hau pelagikoa eta itsasokoa izan, kostaldean ez du habia egiten, oihaneko arboletan baizik (160-260 m-ko altuerara). Bere dieta txibietan eta arrain hegalarri grisetan datza, horretarako oso hegaldi luzeak egin behar ditu halako aldeak aurkitzeko.

Lekualdaketa handi hauek egun batzuk iraun ditzakete, hegaztiak egun batzuetan zehar habia utzi behar dute. Askotan gertatzen da, ugalketa-garaia oso luzea delako. Maiatza eta uztaila bitartean, eme gehienek beren arrautza bakarrik ezartzen dute. Inkubazioak 57 egun dirau. Handik aurrera, zuri-koloreko lumatzaz estalitako txita jaiotzen

da. Txitaren hazkuntza-garaia oso luzea da: 20-25 asteetan zehar, habian geratzen da, lumak garatzen dituenean, 23-40 aste gehiago egongo da baina habia duen zuhaitzean. Hazkuntza-ziklo luze honek urteroko ugalketa eragozten du. Berritze-tasa bost urtetan behin gertatzen da (bikote bakoitzak txita bat du), baina hori ez da kausa bakarrik; honi gaineratu behar diogu, askotan txita gozez hiltzen dela.

Hazkuntza-garai gehiena monzoietan zehar gertatzen da (azarotik martxora arte), eta haize handiek gurasoak irla mugitu gabe egotera behartu dituzte, eta modu horretaz kumeak ez du beharrezko janaria lortzen. Horren ordez, txiten hazkuntza geldoari esker, janaririk eza jasatzeko gai dira.

Abbotteko pikeroa, Sulidoen familiako kide bakarrik da, eta egoera larrian dago. Agortzeko zorian dago eta Christmas uhartean bakarrik habia egiten du (Indiako Ozeanoko ekialdera, Sumatrako uharteko hegoadler).

Hantxe, urtero mila bikote inguru ugaltzen dira, baina Handbook of the Birds of the World liburuaren arabera (J. del Hoyo, A. Elliot, J. Sargata, Edicions Lynx, Barcelona, 1992), populazio osoa 5000-8000 aletakoa izan daiteke. Bikote hauek betiko arazoa aurkitzen dute: ez dute janari askorik txitarentzat, gainera txitaren garapena oso motela dagoenez, urte bat baino gehiago elikatu behar diote. Ildo honekin jarraituz, emeak arrautza bakarrik ezartzen du, eta ugalketa-eritmo horrekin espezieak ez du berreskurapena lortzen.

Asuncion uhartean, gizonak Abbotteko pikeroaren populazioak agortu zituen, izan ere, langileek guanoa ez ezik, arrautzak ere hartzen zituzten, eta gainera espeziea beldurtzen zuten.



Ondorioz, 1930. urtean, hegaztiak irlan ez zuten habiarik egiten. Pikero mota horrek Indiako Ozeanoko mendebaldeko beste uhartetan ere habia egin zuen, esate baterako, Rodriguez eta Glorieuse uhartetan. Azken hauetan desagerpenaren kausa, oihanen desagerpena bilatu behar da. Christmas uhartean deforestazioak hegazti honi kalte handia egiten ari dio. Irla honetan, fosfato-metaketa asko zeudenez, bi hamarkadatan zehar ustiapen zorrotza jaso behar izan zuen. Meatze-ustiapenak ugalketa-lekuei izugarritzko kaltea egin zien, izan ere, oihanetan izugarritzko mozketak egin behar izan zituzten, makinak eramateko.

Zorionez, 1980. urtean irlako zati bat Parke Nazional izendatu zuten eta hurrengo urteetan hedaturik izan zen, azkenean bere mugaren barruan ugalketa-alde guztiak geratu ziren. Alde gehienak fosfatoz beteta daude, baina Australiako gobernuak meatze-ekintza guztiak geldiarazi zituen 1987. urtean, eta handik aurrera ez zen saila izan parkeko mugak hedatzea.

Zoritarrez, Pikeroek habiak egiteko lekuak aldatzea ez dute gustuko, eta beren habiak hondatuak izatekotan, ez dituzte alde berriak kolonizatzen habia berriak eraikitzeko. Bestetik, habia gehienak fosfato-lekue-tan daudenez, oso deforestatutako aldeetan daudela esan dezakegu.

UICNek "arisku larrian dagoen espezie" hartzen du eta 2002. urtean argitaratutako Zerrenda Gorrian agertzen da.





Tamaina: bere luzera osoa, 1,30 m-koa da. Berak 2,1 m-ko hegoluzera du. Oinetatik okzipuziotaraino 1,5 m neurtzen du.

Habitata: kostaldeko belardietan eta paduretan hibernatzen du. Zohikaztegietan habia egiten du.

Banaketa: Ipar-ekialdeko lurraldeak habia egiten du (Kanadan).

Lekualdaketa: Texasen eta AEBetan hibernatzen du.

AMERIKAKO KURRILOA

(GRUS AMERICANA)



Hegaztirik ikusgarrien eta mehatxatuen artean kurrilok daude. Lurrean bizi diren 15 espezieetatik 7 egoera larrian daude, eta zazpitik bi agortzeko zorian daude edo egon dira. Haietatik bat Amerikako kurrilok da, kurrilo kantaria edo "tronpeta-jotzailea".

Bere lumajea zuria da, baina hegaz egitean, beltz koloreko



primarioak eta estal-lumak ikus daitezke.

Antzinean, Amerikako kurrilok asko zeuden Louisiana eta Mackenzie ibaien arteko paduretan (Kanadako erdialdean). XIX. mendearen erdialdera arte, bere arrisku bakarria amerindiarren geziak ziren, baina gizon zuriak Amerikako mendebalde hartu zuenean, eszenatoki bakezale hori zeharo aldatuta geratu zen. Makina bat kurrilok hil eta padurak lehertu zituzten. Arrautza eta disekatutako animalia-bildumagileak, zenbat eta prezio handiagoak izan, orduan eta goseago bihurtu ziren.

1870. urtean, 1500 kurrilok inguru bakarrik geratzen ziren eta hurrengo 30 urteetan, populazio osoa hamar aldiz gehiago murriztu egin zen. 1900. urtean, Amerikako kurrilok jadanik ez zuten habia egiten AEBetan (Louisianako "bayous"etan salbu). Kanadan gauza bera gertatu zen. Arrautza-multzoen puntuak eta negua pasatzeko lekuak batera desagertu ziren: drainatzeak, arroz-soroen sorkuntzak, eta geroago, petrolioputzuak Mexikoko golkoaren itsasertzeko alde hezeak drastikoki ezabatu edo transformatu zituzten, kurrilok zuri handien neguko habitata murriztuz.

1916. urtean, Amerikako kurriloaren babes ofiziala dekretatu zen, baina ia inork ez zuen bete. Kurriloen populazioa murrizten ari zen 16 aleengana ailegatu arte, 1941. urtean. 1937. urtean AEBetako gobernuak Aransasko Aterpe Nazionala sortu zuen (Texasen), bere neguko kuarteletan azken kurriloen populazioa babestuz. Batera, National Audubon Societyk eta beste antolakunde ekologista batzuek publizitate-kanpaina bikaina hasi zuten, prentsak, bere alde, aurrera eraman zuen. Modu horretaz, ehizaren prezioa murriztu zen baita mehatxatutako espeziearen beherakada ere.

Urte askotan zehar, non egiten zuten habia ez zekien, baina 1945. urtean, Kanadako iparraldeko basoetako alde zingiratsu batean hegazkinlari batek Amerikako kurrilok samalda batek ikusi zuen (Great Slave Lakearen ondoan). Uztailean, esplorazio zientifiko batek hegaztien agerpena eta ugalketa-

aldea baieztatu zituen. Alde hau erreserba baten barruan zegoen, erreserba hori (45.000 km²-koa) egin zuten Kanadako azken bison-teak babesteko (Wood Buffalo National Park, Ipar-ekialdeetako lurraldeetan).

Handik aurrera, alde honetako neurri babesak gehitu ziren, eta ekologistek egin zuten presioari esker, handik pasatu behar izan zuen trenbidearen ibilbidea, desbideratzea lortu zen.

1989. urtean Aransasko aterpean 144 Amerikako kurrilok zenbatu ziren eta 1990. urtean, 150 kurrilok basati baino gehiago zeuden.

Hamarkada bakar batean, espezie honen mundu-populazioak bere zenbakia bikoiztu zuen, hori Marylandeko Patuxent Wildlife Research Centerreko gatibaldian zeuden 54 hegazti zenbatu gabe (Idahoko Grays Lake National Wildlife Refugeak samalda esperimentala zuen: 13 kurrilok). San Antonioren Zoologikora ale bakarrik zegoen. 1989. urtean, Marylandeko gatibaldian zeuden 22 kurrilok International Crane Foundation (Nazioarteko Kurriloen Fundazioa) zentro honetan 15 kurrilok espezieetatik 14 espezie ugaltzea lortu da (Baraboon-Wiscousin). Baina kurriloen kontserbazioan beste faktore batzuek eragiten dute, esate baterako, gabarren hondak egiten duten higadura eta kutsadura, eta neguan Aransara joaten den populazioaren kopurua. Azken arazoari buruz esan dezakegu, 1989. urtean, 600.000 pertsona baino gehiago hara joan zirela, neguko aterpea bisita egitera, horregatik askotan, kurriloen jatorduak moztutak izan ziren, baina horren orde, jendeak kurriloen arazoak kontzientzia hartu zuen.

1990. urtean, Arrantza- eta Bizitza Basati-Serbitzua eta Texasako Estatua elkarrekin aritu ziren Aransako babeslekua



hedatzeko, eta ondorioz, Matagorda uharteko lurralde handia gehitzea lortu zuten.

Amerikako kurrilok hegazti oportunistak dira. Hauek, anfibioak, krustazeoak, beste ornogabe batzuk eta sakonera txikiko uretan dauden landareak jaten dituzte.

Lurraldekoak dira oso, eta bizitza osoan zehar ugaltzen dira. Urtero, nahiz eta migrazioa egin, leku bereira joaten dira. Ezteigeraldia, dantza konplexua, errito moduan egiten dute. Egiten duten bitartean, ohiauak botatzen dituzte, (animalia hauek kornetak dirudite). Lurzoru hezean

habia egiten dute, -ur-mailatik gorantz-, beren habiak oso handiak dira, adarrez eta paduretik beste material batzuek eginda daude. Bi arrautza ezartzen dituzte, beix- edo ante-kolorekoa, nabar-koloreko orbanekin. Inkubazioak 35 egun dirau.

Bikoteek kume bat bakarrik zaintzen dute, eta besteari ez diote kasurik egin, hil arte, honek esan nahi du espezie honen potentzial ugaltzailea oso murriztua dela.

Zorionez, gatibaldian haztea oso erraza da: artifizialki arrautzak inkuba dezakete eta gero Kanadiako kurriloei (Grus canadensis) eraman dizkiezaio- te berotzeko.

Gaur egun, AEBetan eta Kanadan kontserbaziorako egitasmoak egiten ari dira. Idahon samalda ez ugaltzailea finkatu da: 2140 ale (Amerikako eta Kanadako kurrilok).

UICNek "Arrisku dagoen espezie" hartzen du, eta Zerrenda Gorria sartuta dago.





Tamaina: bere luzera osoa, 1,20 m-koa da.

Habitata: belardietako ertzetan, kanaberadietan eta aintzirak uharteetan bizi da.

Banaketa: Tibeteko goi-lautadan (3950-4500 m). Indiako iparraldeko tontorrean, Tibeten eta Txinako mendebaldean (Kansuko ipar-mendebaldetik Tsinghaiko ekialderaino) egon ohi da.

Lekualdaketa: hegoalderantz, eta hego-ekialderantz, migratzen du Vietnamen eta Txinako hegoaldean hibernatzeko.

LEPO BELTZA DUEN KURRILOA

(GRUS NIGRICOLLIS)



eta gorri-kolorekoak dira. Luma hirugarrendar handiak beltzak dira, eta buztan beltzaxkaren gainean erortzen dira.


Udan, Tibeteko laku handietako landarediz estalitako ibaiertzetan bizi da, baita Tibeteko lakuen artean ere. Ugalketa aintzira-uharteetan gertatzen da, habiak kaliza erraldoi-itxura du, normalean goroldioz eginda eta ur-landarez estalita.

Maiatzean errunaldia gertatzen da, normalean altitude handienetan (4000 m baino gehiagotan). Jeneralean bi arrautzak dituzte, batzuetan bat; hauek Europako kurriilo arruntak dituztenen antzekoak dira, baina handi samarragoak: hondoa nabar horixka-kolorekoa edo oliba-kolore-

koa da, gainera marroi-gorrixkaz eta gris purpura-kolorezko orbanduak ditu.

Antzinean, hainbeste ale zeuden ezen gizonek hartu baitzituzten jateko. 1970. urtean, berriz, ale gutxi geratzen ziren, alde batetik Vietnamgo gerraren eta ondorioen eraginez, eta bestetik jasandako jazarpenagatik.

Oso erraza da etxekotzea, eta gatiubaldian oso ondo ugaltzen dira. Adibidez, Nazioarteko Kurriiloen Fundazioak 15 espezieetatik hamalau ugaltzea lortu zuen (Wisconsin). 90eko hamarkadaren amaieran, espezie hauen erroldetan 6000 ale zeuden, haietatik 4000 ale Tibeteko hegoaldeko lurraldeetan negua pasatzen zuten. Baina epe luzean, kopuru hauek ez dira nahikoak bere biziraupena ziurtatzeko, izan ere, mehatxatzen dieten faktoreak, bizitzen diren lurralde askotan ere daude. Hau dela kausa, UICNek bere Zerrenda Gorrian "espezie kalteberatza" hartzen du.




Tamaina: bere luzera osoa, 76,2-239 cm-koa da, arren buztana sartuta, 175 cm-koa izan daitekeena.

Banaketa: Laos, Vietnam, eta Malaysia.

Lekualdaketa: sedentario hutsa da.

GANDORRA DUEN ARGOA

(RHEINARDIA OCELLATA)



Txinako folklorean, gandorra duen argoak hegazterren aruntarekin (*Pavo cristatus*) Fung-Whang edo Feng Huangaren eredutzat lehiaketa egiten du, bera taoisten Fenix Hegaztia da, lau alegiazko kreaturetatik bat, berak zeruko laugarren zatia sinbolizatu ohi du. Dena den, gandorra duen argoa ez da Txinan bizi, eta izan daiteke han inoiz ez bizitzea.

Bere banaketaren maila etena da, Vietnamgo erdialdea, Laosko iparralde eta erdialdea eta Malakako penintsulako herri batzuk betetzen ditu.

Bere habitat nagusia baso hezea da, mendikoa nagusiki, 1600 m-ko altuerara baino gutxiago, baina lur behekoetan hezten den plubioihanean ere aurki daitezke. Bere basoko

habitataren hondamendiak, hein batean, bere banaketa etena azaltzen du, baina agian haustura hori oso zaharra izan daiteke.

Beste faisai batzuetan gertatzen den bezala, eztei-gorteitzea landua eta ikustekoa da: Emea erakartzeko, arrak alboko segizioaren erakusketak egiten du: gorputzaren albo bat bakarrik erakusten dio emeari, lumak jaitziz, bitartean, beste

alboko hegoak altxatzen ditu, buztaneko lumak hedatuz. Gorteiatzerako alboko jarrera honek, faisai gehienek erabiltzen dutena, arren tamaina askoz handiagoa dirudiela eragiten dio emeari. Gandorra duen argoaren kasuan, buztanaren

luma handiei esker, efektu hori liluragarria da, izan ere, lumek 15 cm-ko zabalera eta 1,5 m-ko luzera baino gehiago dituzte (hauek munduko lumarik handienak dira).

Kopula gertatu ondoren, emeak bi arrautza ezartzen ditu, habia oso arrunta da eta lurlean eraginda dago; inkubazioak 25 egun dirau. Txitak lumatzaz estalirik jaiotzen dira eta jaiotzetik egun batzuk pasatzera habia bertan behera uzten dute. Baina ez dute amaren laguntza uzten, ondo hegaz egiten jakin arte.

Gandorra duen argoa hegazti bitxia da, oso zaila da ikustea. Nahiz eta oraingoz mehatxaturik ez egon, bere kontserbazio maila arriskuan dago baso hezeetako hondamendiagatik. Hau dela kausa, UICNek "espezie kalteberatza" hartzen du, eta Zerrenda Gorrian sartuta dago.





Tamaina: bere luzera osoa, 86 cm-koa da emearengan eta 92-112 cm-koa arren (buztanik gabe). Buztanarekin 200-250 cm-koa da.

Habitata: basoak, parkeak, arbola hedaturik dituzten aldeak, lur behekoak (900 m-ko altueraraino).

Banaketa: Myanmar, Asiako hego-ekialdea eta Java. Lekualdaketa: sedentarioa da.



JAVAKO HEGAZTERRENA

(PAVO MUTICUS)

Asiako hego-ekialdeak munduko hainbat faisai-mota ditu. Hantxe, gandra duen argus erraldoia, oilar basatia (geure etxe-oilarren arbasoa), faisai asko, eperrak, frankolinak eta bi pauma-espezieak. Javako hegazterrena bi espezieetatik ezezagunena da. Pauma honen jantzia ez da hegazterren arruntarena (*Pavo cristatus*) bezain deigarria, gainera berde-kolorea nagusitzen da, urdina beharrean. Bi sexuen gandra askoz altuagoa da (espezie arruntak duenarekin konparatu ondoren). Dena den, bi espezieen artean hibrido emankorrak ikus ditzakegu: bitarteko ezaugarri kromatikoekin.

Gehien gustatzen zaizkion habitatak, basoak, lurrak arbola-tsua, bai hosto iraunkorreko zuhaitzak bai hosto errorkorreko zuhaitzak dira. Beren banaketa indiakoa baino ekialdeagoa da: Bangladesheko ekialdean, Myanmarren, Txinako hego-mendebaldean (Yunnango mendebalde eta hegoalde), Indotxinan (Thailandiako hego-ekialdea eta erdialdea salbu) eta Javako uhartean bizi da. Dena den, Bangladeshen eta Myanmarren arteko Indiako estatu batzuetan bi espezieak gainezari ohi dira, eta modu naturalez hibridatzen dira.

70eko hamarkadaren hasieran, Javako hegazterren asko zeu-

den. Handik aurrera, gizonak behin eta berriro bere atzetik ibiltzen da eta gaur egun ia ezinezkoa da Parke Nazionalak edo inguru babestuetatik aurkitzea. Eztei-garaia eta eurite-garaia batera gertatzen dira. Arrek haren txikiak eratzen dituzte: 3-5 eme.

Espezie arruntarekin gertatzen den bezala, eztei-gorteiatzea, "gurpila egitean" datza, hau da, isats estal-luma handiak eta polikromoak hedatzean, askok benetako buztanarekin nahasten dute. Benetako buzтана motzagoa eta argiagoa da, gainera esta-lumen atzetik doa eta finkatzeko balio du. Harrokeria bukatzeko, hegala jaitzen ditu eta burua atzerantz botatzen du, modu honetaz bere lumajearen distira erakus dezake.

Beste galiforme batzuek ez bezala, Javako hegazterreak eme-ari atzea ematen dio, horregatik, emeak aurrerantz korrika egin behar du eta arrak behin eta berriro atzea ematen dio, azkenean emea arraren aurrean etzaten da, une horretan arrak bere buzтана tolesten eta estaltzen du. Kopula gertatu ondoren, landarediaren artean emeak 4-8 arrautza ezartzen ditu. Inkubazioak 27-30 egun dirau. Txitak sinkronikoki jaiotzen dira edo desberdintasun txiki batekin. Jaiotzean txitoak lumatzaz estalirik daude eta beste faisai-espezie batzuk bezala, habiatik at joaten dira, baina amak zaintzen ditu buzтана erabiliz.

Gaur egun, UICNek "espezie kaltebertzat" hartzen du. Zorionez, gatibualdian haztea eta mantentzea oso erraza da. Egun gatibualdian dauden Javako hegazterreen erreserba handia dago, naturan berriro sartzeko.



Tamaina: bere luzera osoa, 80 cm-koa da.

Pisua: Arrek 3 kg pisatzera ailega daitezke. Emeak ez dira bezain astunak.

Habitata: mendiko basoetan, bai hosto iraunkorreko basoetan bai hosto errorkorreko basoetan bizi da.

Banaketa: Europa kontinentalean, eta Britainia Handian. Lekualdaketa: sedentario hutsa da.



BASOILARRA

(TETRAO UROGALLUS)

Dimorfismo sexual handia duen hegazti bikaina da basoilarra. Alde batetik, arren lumajea kolore iluneko nabarmentzen da, berarengan sorbalda zuria ikus daiteke, bularrean arrosa-koloreko ñabardurak ditu, baita bekain gorri argitsua ere. Bestetik, emeen lumajea kriptikoa da eta landaretzatik ez da desberdintzen.

Espezie honen ezaugarrien artean bitxikeria bat dago, hau da, basoko alde zehatz batzuk erabiltzen ditu bere araldi-deiadarrek botatzeko. Leku hauei "kantalekuak" esaten diete eta bere kokapenak izugarrizko arazoak ekarri dizkie animaliei, izan ere, ehiztariek



aprobetxatzen dute alerik liluragarrienak hiltzeko. Arrek kantuak egiten dituzten bitartean, begiak ixten dituzte eta ezer ezin dute nabaritu, horrek ehiztarien lana errazten du, zer esanik ez!

Espezie honen elikadura nagusia pinuen azikuluetan datza, baita hosto errorkorreko basoetako baietan eta fruituetan ere. Batzuetan, lurzoruan ibiltzen diren bitartean ornogabe batzuk ere jaten dituzte. Bere hegaldia traketsa eta ozena da, izan ere, animalia honen tamaina oso handia da.

XVIII. mendearen amaieran, basoilarren populazioak beherakadan zeuden banaketa-aldean, ehizatetik batez ere. Dena den, herri batzuetako berriro sartzeko programak emaitza onak eman dituzte. Britainia Handian, adibidez, nahiz eta XIX.

mendean zehar ia agortzeko zorian egon, egun, ale asko daude. Populazio handienak Eskandinaviako konifero-basoetan, eta Europako iparraldeko beste alde batzuetan finkatzen dira.

Iberiar Penintsulan ale gutxi daude. Ez dago beren populazioari buruzko errola fidagarriak; Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean bakarrik bizirik jarraitzen du. Mendikate bakoitzean hainbat habitatan bizi da: Pirinioetan konifero-basoetan bizi den bitartean, Kantabriar mendikatean, pagadietan eta hariztietan beren lurraldeak finkatzen dituzte.

Iberiar Penintsulan dituen arazoen artean, turismo-infrastruktura zerbait ikusten dutenak daude (baso-pistak, eski-estazioak, eta abar), izan ere, hazkuntza-lurraldeetan egon ohi dira. Isileko ehizak ere kalte handia egiten die, izan ere, ale heldu baten heriotzak genetika-aldakortasunaren galera larria ekartzen du eta berrezkuratzeko aukerak murrizten ditu.

Espainiako egoera oso ona ez den arren, UICNek ez du bere Zerrenda Gorrian sartzen, izan ere, Europako iparraldeko populazioak, eta berriro sartzeko programak, epe luzean, espezie honen biziraupena baieztatzen dute.





Tamaina: bere luzera osoa, 60 cm-koa da.
Habitata: goiko lurraldeetako baso trinkoetan bizi da.
Banaketa: Kaledonia Berria (Queenslanden artean eta Zeelanda Berriko ipar-mendebal-dera).
Lekualdaketa: sedentarioa da.



KAGUA

(RHYNOCHEOTOS JUBATUS)

1850. urtean aurkitu zen kagua. Kaledonia Berriko endemikoa da, eta nahiz eta antzinean irla oso oso hedatua izan, mendebaldeko gizonen eta beren etxe-animalien etorrera gertatu ondoren, kaguen populazioek izugarizko beherakada jaso zuten.



1940. urtean “espezie kaltebe-ratzat” hartuta zegoen jadanik, eta geroago, 1966. urtean, UICNek “oso espezie bitxitzat” hartu zuen. Dena den, nahiz eta babesa ofizial eduki, aleak gero eta gutxiago zeuden, gainera kaguaren habitata oso murriztua zegoen, hau da, Kaledonia Berriko erdialdeko eta hegoaldeko baso batzuetan egon zitezkeen. Bere beherakadaren kausen artean daude: etxe-harraparien sarre-ra (txerriak, txakur basatiak, katuak) eta beren habitaten hondamena. Bere lumaje lilu-

rragarriaren erruagatik, kapelu-saltzaileek eta hegatzizaleek asko preziatzen zuten. Gainera, bere haragiaren zaporeak badu zerikusirik hondamendiarekin (XIX. mendearen amaieran, oso plater preziatua izan ohi zen). Jazarpen zuzena asko murriztu da irlan (tranpekin egiten zituztena); dena den, gizonek irlako basoak hondatzen jarraitzen dute nikela ateratzeko (Kanadako baliabiderik nagusi-ena), eta sartutako ugaztunek, basati bihurturik, gehiegizko harraparitzarekin jarraitzen dute, urrutiko lekuetan ere. Kaguak ia ez du hegaz egiten, oihaneko lurzoruan habia egiten eta jaten du. Lurzorutik tente ibiltzen da, noizean behin azalean haztakatzen ditu intsektuen larbak, zizareak eta moluskuak bilatzeko. Jarraituta denean, korrika egiten du hegaz zabaldut, baina segundu gutxitan baka-rrik abiadura handia mantentzeko gai da. Hegaldia hastea asko kostatzen zaio, eta hau dela kausa, ia beti lurzoruan dago edo gehienez 1,5 m-ko altuerara. Lehorreko ohitura hauek harrapakin erraz bihurtzen dute. Honi gaineratu behar diogu ikusmen gutxi duela, honek gauetan lur-rean etxanda egotera behartzen du, eta horregatik, txakur bas-tien lana erraztatzen du, zer esanik ez! Arrautza bakarra ezartzen duten espezie gehienak beza-la, kagua espezie urtetsua da. Gatibualdian eta klima

beroetan dauden aleak 20 urte baino gehiago izatera ailega daitezke, ale batzuek 30 urte baino gehiago bizitzea lortu dute. Bestetik, oso erraza da gati-bualdian haztea, baina kumeen gizen-tzeak arazoak ekartzen ditu. Helduak, berriz, oso onak dira etxekotzeko eta aparteko maskotak izan ohi dira. Ugalketa-potentziala nahiko altua da. Nahiz eta bere egoera larria izan, etor-kizuna ona izango delakoan gaude, baina horretarako, bere habitataren hondamena gelditu behar dugu eta batera txakur basatien desagerpena lortu behar da.

1978. urtetik, Société Calédonienne d'Ornithologiek gatibualdiko ugalketa-programa hasi zuen, berari esker, Rivière Bleue Park-ean ale gazteak aske utzi zituzten, eta modu horretaz hango lurraldeko populazioa handitu zen. Dena den, txakur basatien eragina oso txarra izan zen Pic Ningua Erreserban, izan ere, 1993. urtean 21 hegazti hil zituzten, beraz, 1994an erreserban 10 ale zeuden. 1992. urte-an zehar, Birdlife Internationalak eta Association pour le Sauvage de la Nature Neo-Caledonienneak berresku-ratzeko programa hasi zuten eta Pic Ningua erreserba egin zuten (Nouméatik 100 km-ra). Gaur egun, espeziaren populazio osoa 650 ale ingurukoa da, baina epe luze batean zenbaki hau ez da nahikoa izango bizi-raupena baieztatzeko. Hau dela kausa, UICNek bere Zerrenda Gorrian “arisku dagoen espezieztat” hartu du.





Tamaina: bere luzera osoa, 22 cm-koa da.
Habitata: oihan hodeitsua, 1500-2850 m-ko altuerara.
Banaketa: Ginea Berriko erdialdeko mendikateak.

Nahiz eta espezie askoren itxura etereo izan, padadisko hegaztiak oso sendoak izan ohi dira, moko lodia eta hankak sendoak dituzte. Arabazozo arruntaren eta erroiaren arteko tamaina dute. Neurtzeko orduan lumak ez ditugu kontuan hartzen, izan ere, batzuetan oso luzeak dira eta espezie batzuen arrek erabiltzen dituzte emeei gorteiatzeko. Saxoniako erregearen paradisiko hegaztiak ez ditu hain luma luzerik buztanean, buruan baizik.

Gorteiatzean, arrek begien atzetik dituzten bi luma liluragarri erakusten dituzte, hauek 50 cm-ko luzera izatera ailega daitezke, hau da, bere gorputzaren tamainaren bikoitza. Luma hauetako kalamuek alanbre-itxura dute, albo batean eta kanpoko aldean, urdin argi-koloreko lobulu txikiz apainduta daude, beheko aldean, berriz, laranja-kolorekoa da.

Eztei-geraldian gertatzen den bitartean, hegaztiak bi luma zefaliko tente mantentzen ditu, salto frenetikoak emanez emea harritzeko. Salto egiten duen bitartean, bizkarreko lumak tente jartzen zaizkio eta txistu zaratatsua botatzen du. Gero, kitzikatzea gehitzen den heinean, emeari agurtzen dio, bere lumaz berarengana hedatuz, eta apeu leuna botatuz.

Duela gutxi, Dawn eta Clifford Frith Australiako naturalistek tilo-norinkoek edo pergolero papuek (*Archboldia papuensis*) aurkitu zituzten, Saxoniako erregearen paradisiko hegaztien bi luma zefalikoak erabiltzen dituzte, beren pergolak egiteko eta modu horretaz emeak erakartzeko. Naturalista hauen ustez, pergoleroen balentria bikaina da, izan ere, Saxoniako erregearen paradisiko hegaztia

SAXONIAKO ERREGEAREN PARADISUKO HEGAZTIA

(*PTERIDOPHORA ALBERTI*)




espezie bitxia da eta urtean behin bakarrik bere luma zefalikoak berritu ohi ditu.

Hegazti hauen ugalketa-sistemak eboluzio-dibergentzia azkarra eraman du hainbat espezieren artean. Dena den, dibergentzia morfologiko handi horrek ez du aspektu genetiko markatu. Espezie askotan arrak zeharo desberdinak dira bai koloreetan, bai itxuretan baita amodio-portaeran ere, baina genetikoki hurkoak dira eta hibridoak aurkitzea ohikoa da, baita naturan ere. Genero bereko espezieak ez ezik, hainbat genero-espezie ere hibridatzen dira. Hibridazio horietatik jaiotzen diren arrek espezie bietako izaerak heredatzen dituzte, eta hain desberdinak izan ziren, ezen zoologoek espezie berriak zirela pentsatu baitzuten.

Izan liteke, neurri bateraino, Saxoniako erregearen paradisiko hegaztia beti espezie bitxia izatea, baina mende batzuetan zehar (1600. urtetik 1914. urtera arte), espezie honen arrek jasaten zuten trafiko handiak ez zion lagundu bere maiztasuna gehitzen.

Zorionez, gaur egun bizi den habitatean ia erasoezina da, edo gutxienez alde handi batean. Egia esan, paradisiko hegazti batzuk Saxoniakoa baina egoera larriagoa pairatzen ari dira, haien artean dauzkagu: Mac

Gregorren paradisiko hegaztia (*Macgregoria pulchra*), buztan luzea duena (*Paradigalla carunculata*), beltza (*Epimachus fastosus*), marroia (*Epimachus meyeri*), zinta-itxurako buztana duena (*Astrapia mayeri*), Rothschildena (*Astrapia rothschildii*), Wahnesena (*Parotia wahnesi*), Goldiena (*Paradisea decora*), Alemaniako Guillermo enperadorearena (*Paradisea guilelmi*) baita Paradisiko hegazti urdina ere. Hauek guztiak, Wallacekoa izan ezik -Wallacen bizi dena (Zelegeak eta ondoko uharteak)- Ginea Berriko espezieak dira, beren banaketa-aldeak oso murriztua egon ohi dira, eta horregatik beren habitaten hondamenetara oso kalteberak dira.



Tamaina: bere luzera osoa, 25 cm.
Habitata: baso trinko hostoiraunkorretan, sastrakaz beteta.
Banaketa: hedotik gertu, Okinawako iparraldeko tontorrean.
Lekualdaketa: sedentarioa da.

Okinawako okila tamaina txikiko hegazti liraina da. Bere lumajea nabarmen gorrixka da, pileoak gorrimin-kolorekoa du, eta sabela arrosa da. Pileoaren aldeko alde eta ezterri zuriaren gainean dagoen bibotea beltza dira. Emeek garondoko goiko aldean ez dute gorrimin-kolore bizia, eta pileoa marroia dute.

Bere izenak esaten digunez, Okinawako okila Ryukyu artxipelagoko irla japoniar horretan bakarrik aurki daiteke (Okinawa artxipelagoko erdialdean dago, Nansei Shoton). Gaur egun munduko hegazti mehatxatuenetarikoa bat da.

Nahiz eta 1966-1970 bitarteko Liburu Gorriek animalia horri buruzko fitxarik izan ez, egun, 200 ale baino gutxiago geratzen dira.

Espeziea relikta da, eta beste espezie

OKINAWAKO OKILA

(*SAPHEOPIPO NOGUCHI*)



batzuren harremanak ez daude oso argi, baina edozein hegaztirengandik desberdin ditzakegu, izan ere, zeharo desberdina da.

Hiru hamarkadatik, bere habitata oso murriztua dago: banbuzko basoetan, zuhaitz hostoiraunkorretako baso heze eta trinkoetan bizi da. Inoiz ez dago 150 m-tik behera.

Ugaldu ondoren, bi sexuek zulo bat egiten dute, eta hondoan emeak bi arrautza ezar-tzen ditu.


Oso mehatxatua dagoen beste espezie bat Okinawako urolanda handia da (*Gallirallus okinawae*), irlako iparraldean dago. Kolore distiratsuak dituen gruiforme txikia da.

1981. urtean aurkitua izan zen hegazti endemiko hori. Irlako beste espezie batzuk bezala, ezin du hegaz egin. Egunez, irlako lurzorutik dabil intsektuen eta musker txikien bila.

Beti uharraren edo ur-ibilbideen ondoan dabil, lumak garbitzeko edo bainua hartzeko. Gauez, edozein enbor makurturen gainean lo egiten du, eta modu horretaz zerbait bitxia nabaritzen badu, lurrera jauziko da ihez egiteko.

Etengabeko baso-mozketak kalte handia egiten dio espezieari. Hau dela kausa, gaur egun 1000-2000 ale bakarrik daude, eta deforestazioa amaitzen ez bada, ale guztiak desagertuko dira. UICNek 2002. urtean Zerrenda Gorrian sartu zuen "arisku dagoen espezieztat" hartuz.





Tamaina: bere luzera osoa, 14 cm.

Habitata: mendiko plubioihana (1500 m-ko altueratik gorako altuerak).

Banaketa: haleakala sumendiko mendi-mazelak (Maui uhartea/Hawaii).

Lekualdaketa: sedentarioa da.

SASINESTORRA

(PSEUDONESTOR XANTHOPHRY)



Sasinestorra, kea faltsua edo Mauiko papagaiaren mokoa, Drepanidino familiakoa da. Hawaiiiko txonta ere esaten diote, izan ere, artxipelago horretako endemikoa da. Subfamilia horrek 30 espezie ditu, 18 generotan banatuta, baina batak bestetik hain desberdinak dira, ezen lehenengo zoologoek familia desberdinetan sailkatu baitzituzten.

Bere izena, bere moko bitxitik dator. Zeelanda Berriko papagai bitxiaren antza du (kea), baina papagaiak ez bezala, ezpezie hau beti intsektuen bila joaten da. Zuhaitzetako adar txikiak birrintzen ditu, kakalardoek larbak harrapatzeko. Ornitologoek ustez, Koa (*Acacia koa*) zuhaitzetatik makina bat kakalardo triskatzen ditu. Gubxitan, Pelea zuhaitzetara joaten da Plagity husus kakalardoek larbak jatera, baina aparteko aztamak uzten ditu zuhaitzetan.

Sasinestorrek goiko masailezur makurtuarekin adarrari hartzen dio, gero beheko masailezura kontrari jartzen du, larbak

zulatutako galeria begi bistan utzi arte. Gero, mokoa indarrez ixten du edo adarrei tiraldi gogorra ematen dio; gero, mihiaren bidez harrapakina harrapatzen du.

Ez da inoiz deskribatu arrautzarik ezta txitak ere. 1894. urtean, Perkins ornitologoak habia hutsa aurkitu zuen, lurzorutik 8 m-ra, Koa zuhaitz batean. Sasinestoraren habia zela pentsatu zuen, izan ere, egun batzuetan zehar heldu batzuk eta bi gazte ikusi zituen hegaz egiten ikasiz. Garai berean, beste ornitologo batek esan zuen sasinestor heldu batzuek gazteei janaria ematen ikusi zuela, eta beren ondoan zegoen habia Perkinsek ikusi zuenaren antza zuela. Bi habiek kopa-itxurakoa zuten, beste drepanidinoenak bezala; kanpokoa gris-koloreko likenez estalita zegoen, Koa zuhaitzaren gainean hezten zirenak bezala. Ez dakigu ezer gehiagorik habia egiteko orduari buruz, baina jakin badakigu, bere apeua "Kii-uuui" errepikatua dela, eta bere kantua txio motza eta indartsua dela, nukupuuak egiten duen moduan (*Hemignathus lucidus*), batzuetan kea faltsuak botatzen duela.

Sasinestorra Haleakalako goiko mendi-mazeletako basoetan bakarrik bizi da, Mauiko uharteko sumendi agortuan. Beti 1500 m-ko altueratik gorako lekuetan egoten da eta inoiz ez da jaisiten. Gehien gustatzen zaizkion arbolak Koak dira, baita oihanpekoak ere.

Gaur egun ale gutxi daude, baina Palmerren aurkitu zuenean, 1890. urtean, gauza bera gertatzen zen. Garai berean, Perkinsek eta Henshawek ale batzuk harrapatu ondoren, ez zen aurkitu halako hegaztirik 1950. urtera arte. Abenduan, L.P. Richardsek bi ale ikusi zituen, eta bietatik bat hartu zuen Haleakalako iparraldeko mendi-mazelan (3200 m-ko altuerara). 1967ko abuztuaren 29an, hegazti hori ez zen berriro ikusi, Kipahuluko haranerako txangoaren azken egunean.

Sasinestorren populazio osoa ez da ugari, 500 ale inguru dira, baina nahiko egonkortzat hartzen da. 1960. urtetik espeziea babestuta dago legalki, eta bere banaketa-murriztua Haleakalako Parke Nazionalaren barruan dago -1968. urtetik Kipahuluko harana ere hartzen du-. Haran hori itsa-mailatik 3200 m-raino doa. UICNek "espezie kalteberatzat" hartzen du.



Tamaina: bere luzera osoa, 58 cm.

Habitata: pinu eta haritz-baso eskuraezinetan, iparraldean 2000 m-tik gorako altueran, eta hegoaldean 2600 m-tik gorako altueran.

Banaketa: Mexikon: Mendebaldeko Ama Mendia. 40ko hamarkadan, Txihuahuako eta Durangoko estatuetan bizi zen. 40ko hamarkada baino lehen Sonoran, Jaliskon, Zakatekasen eta Mitxiakanean ere.

Lekualdaketa: sedentarioa da.

Munduko pizidorik handiena da okila inperiala, izan ere, 58 cm-ko luzera du. Beste okila batzuk bezala, igotzera moldatua dago baita zuhaitzen azala finkatzera eta egurrean zulatzeraz intsektuak harrapatzeko ere.

Egile askok pentsatzen dute Mexikoko okila inperiala agortuta dagoela, izan ere, 1957. urtetik ez da okila inperialarik ikusten. Dena den, baliteke Mexikoko mendebaldeko Ama Mendiko alde altuenetan (Durango eta Txihuahua estatuetan) egotea. Bere habitat nagua



OKILA INPERIALA

(CAMPEPHILUS IMPERIALIS)



sia pinu eta haritz-baso eskuraezinetan dago, iparraldean 2000 m-tik gorako altueran, eta hegoaldean 2600 m-tik gorako altueran. Deforestazioak ez die kalte egiten alde hauei, eta agian, gizonen egin zituen jarrapenaren kausaz espezie liluragarri horren beherapena gertatu zen. Horixe da, herriko populazioak beren atzetik ibiltzen ziren alde batetik bere elikadura-balioagatik eta bestetik, senda-balioagatik (izan ere, balio superstiziosoak ematen zioten Mexikoko okila inperialari).

Nahiz eta legalki espeziea babestua egon, ia ezinezkoa da hau betetzea, izan ere, mendebaldeko Ama Mendiako alde eskuraezinetan bizi ziren gizonak gutxieneko iraupen moduan bizi dira.

Campephilusen beste espezie batzuek bezala, okila inperialak zuhaitzeko enborrean -zultatuz- habia egiten du. Emeak hor bi arrautza ezartzen ditu,

emea eta arra tartektzen dira txitak berotzeko. Hain ale gutxi daude ezen UICNek "arriku larrian dagoen espezieztat" hartzen baitu, Zerrenda Gorrian sartuz.



Tamaina: bere luzera osoa 50 cm-koa da. Berak 8 cm-ko hegoaluzera du.

Habitata: baso helduak eta esku-raezinak. Ipar Amerikako subespezia AEBetako hego-ekialdeko baso zingiratsuetan bizi da edo bizi izan zen.

Banaketa: Kubako ekialdeko mendietan eta agian, AEBetako hego-ekialdean dago.

Lekualdaketak: seguruenik sedentarioa da.



BOLIZKO MOKOA DUEN OKILA

(CAMPEPHILUS PRINCIPALIS)

Bolizko mokoa duen okila, bere tamainagatik, munduko hirugarren okila da; Mexikoko okila inperiala (*Campephilus imperialis*) eta okila albetsua bakarrik dira bera baino handiagoak.

Bi sexuek zuri- eta beltz-koloreko lumajea dute, eta arrek gorri-min-koloreko gandorra. Honek izugarrizko edertasuna ematen dio bolizko mokoa duen okilari.

XIX. mendearen erdialdean, Ipar Amerikako subespezia (*Campephilus principalis principalis*) AEBetako hego-mendebaldeko kuadranteetan ondo banaturik zegoen: Floridatik,

Louisianatik eta Texastik. Dena den, baliteke gizonaren hegatiaren intolerantziak hegaztiaren populazioen parte bati kalte egitea jadanik. Mende honetako hasieran, Audubonek esan zuen, nahiz eta okilak beldurtu nahi ez izan, ikusita sentitzeko-tan habiak bertan behera uzten zituztela. Gainera, indigenek okila jazarpenapean ezarri zituzten, beren gauzak apaintzeko; izan ere, nagusien gerrikoak bolizko mokoa duen okilaren lumaz eta mokoz beteta zeudela esan zuen Audubonek. Dena den, Ipar Amerikako subespeziearen beherakada nagusia 1885-1900 bitartean gertatu zen. Garai horretan zur-industriek garapen handia izan zuten.

1915. urtean, espeziea 12 herritan bakarrik zegoen, eta 1930. urtean, 5 herritan. Azken data honetan murrizketa hain garrantzitsua izan zen, ezen 22 ale bakarrik baitzeuden. 1940. urtean, behaketa zientifiko batzuk egin zituzten, baina handik aurrera hurrengo behaketak zalantzan daude.


Iparraldeko subespeziearen elikadura oso espezializatua da: kaduzifolio- edo konifero-basoetako zuhaitz hildetatik gertu bizi dira, non kakalardo xilofogo handien larbak bizi baitira. Gainera, bere elikadura ia larba horietan bakarrik datza. Basoaren ustiapenaren eskakizunek lehen mailako basoaren ordezkariak mailakoa kokatu zuten, hauetan ez zeudelako zuhaitz hilik, eta horrela ez zegoen larbarik eta ondorioz elikadurarik.

Amerikako subespeziaren habiak metro bateko luzera zuen, tamaina handiko zuhaitz batean (haritza, nekosta...). Bai arrak bai emeak zulo bat egiten zuten txandaka. Zuloak espiral-itxura zuen, segurki, txitak eguraldi txarretik babesteko. Espiralaren hondoan, adarrezko geruza fina jartzen zituzten okilek, eta gero emeak hiru arrautza zuri-zuriak erruten zituen, baina bakarrik arrautza bat edo bi ernalduta zeuden, hau da, ugalketa-tasa oso baxua zen. Epe luze batean, gazteek habia uzten zuten, eta egiten zuten beren lumajea emearen antza zuten. Hazkuntza amaitu ondoren, gurasoak ez ziren banatzen, elkarrekin eta gainera oso txeratsuak mantentzen ziren; batzuetan beste bikote batzuekin lotzen ziren.



Bestea, *C. principalis bairdii* subespezia, Kubako ekialdean bizi zen (Ekialdeko Probintzian zehazki), hosto zabalak zituzten zuhaitzetan eta pinu zaharretan. 1963. urtean, alde hori Erreserba Absolutua izendatu zuten.

Nahiz eta erregistro historikoetan zortzi herri aipatu, Kubako mendebaldeko bost eta ekialdeko hiru, uste da bolizko mokoa duen okila irla osoetik banaturik zegoela. Hala ere, Kubaren eta AEBren arteko Itunaren ondorioz (1903. urtean), azukre-kanaberagintza aurrera eraman zuten eta horretarako basoak moztu zituzten. Deforestazioak kalte handia egin zion animalia honi: 1956. urtean, irla osoan 12-13 ale bakarrik bizirik jarraitzen zuten (Ekialdeko



Probintzian).

Handik aurrera, hegazti honen existentzia zalantzan jarri zen, eta urte gutxiaren buruan agortuz joan zen. Baina 1986. urtean, zientziak berriro aurkitu zuten subespezia. Dena den, aurkitutako populazioa oso txikia da, eta herriaren zailtasun ekonomikoak eta isolamendu politikoa kontuan hartuta, komunitate zientifikoak eta nazioarteko kontserbazio-erakundeek ezin dutela bizirik aterako pentsatzen da.

Datu egiaztatu gabeak direlako, UICNk agortutzat jotzen du bere Zerrenda Gorrian.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa 18-19 cm-koa da.

Habitata: oinarrizko basoak

Banaketa: Little Barrier uhartea (Zeelanda Berria). Hen eta Kapiti uharteetan sartuta izan da.

Lekualdaketak: sedentarioa da.

TXORI JOSTUNA

(NOTIOMYSTIS CINCTA)



Txori jostunari, irlako melifagoa ere esaten diote, izan ere, Melifagidoen familiako ordezkarietako bat da. Bere familiako beste kide batzuen bezala, bere mokoa luze eta finua da, pixka bat beherantz makurturik. Berak mihia luza dezake, bere muturra eskuila-itxura du nektarra harrapatzeko. Dena den, bere ahaideek ez bezala, izugarrizko dimorfismo sexuala du: arraren lumajea emearena baino biziagoa da.

Bere dieta, fruituetan, nektarrean eta intsektuetan datza. Intsektuak hemendik edo handik harrapatzen ditu, izan ere, edozein lekutan egon daiteke eta ez derrigorrez, non janari asko baitago. Udazkenaren amaieran eta uda australan zehar ugaltzen da. Emeak 3-5 horixka kokoreko arrautza bitartean ezartzen ditu (marroi-koloreko orbanekin). Zuhaitzaren enborean edo adar altuetan habia egiten dute. Inkubazioak 15 egun dirau eta txitak bi aste gehiago habian geratzen dira.

Hasieran txori jostuna Iparraldeko uharteetan zegoen, baina orain Irla Txikietan bakarrik aurki daiteke. Txori jostuna rara avis-a da.

1840. urtean, Iparraldeko uharteko alde askotan ikus zitekeen,

baita Kapiti, Great eta Little Barrier uharteetan ere. 1890. urtean Iparraldeko uhartetik jadanik desagertua zegoen eta hurrengo urteetan Great eta Kapiti uharteetatik.

UICNaren Liburu Gorriaren arabera, 1969. urtean Little Barrier uharteetan bakarrik zegoen. Bere desagertapenaren kausen artean batzuk aipa daiteke, esate baterako, jasandako jazarpena bere haragiaren zaporeagatik, arraren lumen balio apaingarriagatik, eta katu basatien harraparitzagatik.

Txori jostuna, legalki, hamarkada batzuetatik babestua dago. 1960. urtean, Little Barrier uhartea Santutegi edo Erreserba izendatua izan zen, eta handik aurrera kontrol zehatza daramate. Hurrengo urteetan katu basatien populazioarekiko neurriak hartu ziren, horri esker, bere kopurua gehitu zen. Bitartean, Kapiti eta Hen (hemen inoiz ez da autoktonoa izan) uharteetan berriro sartu zuten hegaztia. Ez daki zeintzuk ale basati egongo diren, baina 1966. urtean zegoena baino handiagoa dela pentsatzen da -babesaren neurriagatik-. Horregatik, UICNek "espezie kalteberatzat" hartzen du bere Zerrenda Gorrian.



Tamaina: bere luzera osoa, 29 cm-koa da.
Habitata: mendiko oihanean (500-900 m-ko altuera).
Banaketa: Puerto Ricon - Luquillo Baso Nazionalen bakarrik bizi da.
Lekualdaketak: bertakoak, oihaneko fruituen heldutasunaren arabera.

Puerto Ricoko amazona, tamaina erdiko papagaia da. Uharte honetan bakarrik aurki daiteke. Antilletan dauden beste espezie batzuk bezala, bere populazioak asko murrizturik daude eta ia agortzeko zorian dagoela esan daiteke.

Antzinean, Puerto Ricoko espeziea uharte horretatik oso hedatua zegoen, eta Culebra uhartean (*Suge uhartea*) espezie honetako beste arraza bat zegoen. Baina XIX. mendearen amaieratik, gizakiaren jazarpenek, basoko habitataren hondamenek, perla-koloreko sinsontek (*Margarops fuscatus*) egiten zuten arrautzen eta txiten harrapaketeek, eta beltz-koloreko arratoien (*Rattus rattus*) sarrerak, populazio guztien murrizketa ekarri zuten.

1989. urtean, Suge uhartean azken aleak harrapatu zituzten. Suposatzen da garai hartan populazio asko zegoela. Modu horretan, Kolon Puerto Ricora ailegatu zenean, amazona endemikoen populazioak 100.000 ale baino gehiago izango zituen, baina pixkanaka-pixkanaka murrizten hasi zen, eta 1912. urtean egoera nahiko bitxia zen.



PUERTO RICOKO AMAZONA (AMAZONA VITTATA)



Egoera larriagotu egin zen 1956. urtean, Luquillo Basoan 200 ale konfinatuta zeudenean. 1950. urtean Erreserba bihurtu zenez, ez zegoen agorturik. Puerto Rico, segurki, munduko irlarik desforestatuena da: gaur egun jatorrizko landareztatik %1 bakarrik geratzen da, eta basoaren babesluku txiki bakarra, hain zuzen ere, Luquillo Basoa.

Nahiz eta gero debeku absolutua dekretatu, espezie hori ehizatzeke, bere populazioak murrizten jarraitu zuten. Isileko ehizak (merkataritzako eta elikatzeke), sartutako harrapariek, eta nati-boeek animalia hauen populazioak sarraskia egiten jarraitu zuten. Horrela, 1975. urtean, Puerto Ricon 13 amazona bakarrik zeuden aske. Agortzeko zorian zeudenean, kontserbaziorako larrialdiaren programa hasi zen, eta bere neurrien artean: ehizarren eta tranpen kontrola askoz zorrotzagoa, habien kopuru artifizialen gehikuntza, zuhaitzetako zulo egokiak arintzeko eta Santo Domingoko papagaiek (*Amazona ventralis*) egiten zuten txiten eta arrautzen adopzioa. Espezie hau Puerto Ricoko amazonarekin erlazionaturik dago.

Kontserbaziorako programak izugarizko arrakasta izan zuen: 1982ko urrian, populazio basatia gehitu zen; bere kopurua bikoiztu zen, eta 15 ale gatu aldian zeuden.

1989ko abuztuan, amazonaren populazio basatia gutxienez 47 alekoa zen, baina Hugo urakana irailean ailegatu zen irlara eta 23 ale utzi zituen. Zorionez, hurrengo urtaroan populazio basatia arazorik gabe ugaltu zen, eta 1991. urtean, 24 urteekin konparatu ondoren, errekor bat lortu zen: amazonaren hiru bikotek habia egite lortu zuten.

Honi gaineratu behar zaio, 1970. urtean hasitako programak 1971ko irailean jadanik 56 ale lortu zuela: sexuen banaketa ona zen, eta genetika-dibertsitatea onargarria zen. Pixka lehenago, gatibualdian zeuden aleak aske utzi zituzten eta emaitzak onak izaten hasi ziren. Handik aurrera, populazio basatien gehikuntza geldoa baina etengabekoa izan zen; gatibualdian zeudenak

gelditu gabe gehitzen ziren.

1991. urtean, arriskuak aurrez ikusteko (urakanak, gaixotasunak, etengabeko genetika-dibertsitatearen galera), beste populazio gatu bat kokatu zen "*Ibaian Behetik*" Basoan. 1968. urtean hasi zen Kontserbaziorako Programak benetako banko genetikoa sortu nahi izan zuen, katastrofe naturalak aurrez alde-tik ikusteko.

Amazona generoko papagaiek espezie-talde bat eratu zuten, zeinek duela asko dibertsifikatu egin baitzen. Haietatik, espezie askok uharteetako endemismoak dira.

Ezin dugu ahaztu, irla txikitako espezie endemikoak hegaztien mehatxu handiena direla, eta dudarik gabe, azken hiru urteetan agortuenak izan dira.

Gizakion eraginak uharteetako espezieei kalte egiten die, alde batetik, urte askotan zehar isolaturik geratu direnez, etsaien eta lehiakideen kontrako moldaketak galdu dituzte. Ondorioz, gizonak sartutako animaliak (txerriak, txakurrak, katuak...) animalia hauen kalteberak dira. UICNek bere Zerrenda Gorrian (2002. urtean) "arrisku larrian dagoen espezie gisa" jasotzen du.

Beste mehatxatutako psitazido batzuk ere badaude, esate baterako, Paradisuko perikitoa (*Psephotus pulcherimus*), lehorreko perikitoa (*Pezoporus wallicus*), marroi-koloreko bekokia duen loroa (*Rhynchopsitta terrisi*), indigo-koloreko guakamaioa (*Anodorhynchus leari*), Spixko guakamaioa (*Cyanopsitta spixii*), Maurizioko papagaia (*Psittacula echo*), Hiazinto-ara eta kaka-poa.

Egoera larrian dauden Amazona generoko espezien artean daude:

- * Gorri-koloreko begi-ordeak dituen amazona (*Amazona pretrei*), "*kalteberatza*" hartuta
- * Berde-koloreko masailak dituen amazona (*Amazona viridigenalis*), "*arriskuan dagoen espezie*" gisa
- * Brasilgo papagai buztangorria (*A. brasiliensis*), "*arriskuan*".
- * Aurpegi horia duen amazona (*Amazona xanthops*), "*kalteberatza*" hartuta;
- * Amazona ardotsua (*Amazona vinacea*), "*arriskua dagoen espezie*" gisa



- * Sta. Luzia uharteko amazona (*Amazona versicolor*), "*kalteberatza*" hartuta;
- * Lepo gorria duen amazona (*Amazona arausiaca*), "*kalteberatza*" hartuta;
- * San Vicenteko amazona (*Amazona guildingii*).

Paul Butler, naturalista britainiarri esker, Karibeko amazonek eta Montserrat uharteko urretxoriek bizirik jarraitzen dute. Paul Butler RARE (Rare Animal Relief Effort) organizazioaren programa karibetarraren zuzendaria izan zen, eta horren bidez Latinoamerikako kontserbaziorako espezieak babesten ari da. Butlerren lana Sta. Luzia uhartean hasi zen, uharte honetako amazona endemikoari buruzko heziketa-kanpaina egin zuen -Jacqueta- bera hegazti nazionala da. Hegazti hori ospetsu bihurtzeko, bide batzuk erabili zituen, esate baterako, ikastole-tako arbelean jarri zuen, kamisetetan, pegatinetan, pasaporte nazionalen ere. Modu horretaz, tiragomaren itua izatetik heroi nazionala izatera pasatu zen.

Butlerrek beste kanpaina batzuetan ere parte hartu zituen, adibidez, Dominika uharteko loro inperialaren kontserbaziorako kanpainan, baita Sta. Luzia uharteko plubioihanaren kontserbazioan. Autobusa transformatu zuten ikus-entzunezko erakusketa ibiltari batean, bere azken ekarrietariko bat. Modu horretaz, irlako oihanak kontserbatzeko modua erakusten zuen eta deforestazioaren efektu larriak: ur-laster gardenen filmazioen gainean, deforestatutako aldeetako ibai lohitsuak erkatzen zituen eta sortutako efektuak inguruan zeuden arrezifeetan eta zoruaren emakortasunean.

Autobusako hormetan agertzen zen maskota papagai inperiala zen, zer esanik ez! Butlerren kanpainaren bidez gauza bat frogatu zen: ahalegin, ardura eta irudimenaren bidez, bertako populazioen jarrera, naturaren kontra, erabat alde daitekeela, eta modu horretaz, espezierik kalteberenak kontserbatzeari lagun diezaioketula.



Tamaina: bere luzera osoa (buztanarekin) 93-100 cm da. Buztanak 55 cm neurtzen du. **Pisua:** 2,5 kg. **Habitata:** istingadiak, palmondo-basoak, baso hezeetako bazterrak, galeriazko baso idorrak. **Banaketa:** Brasilgo erdialdean, Boliviako ekialdeko tontorrean, eta agian Paraguaiako ipar-ekialdeko tontorrean. **Lekualdaketak:** maila txikian, fruituen heldutasunaren arabera gertatzen dira.

HIAZINTO-GUAKAMAIOA

(ANODORHYNCHUS HYACINTHINUS)



Guakamaioa edo hiazinto-ara munduko guakamaioarik handiena da, eta segurki handientzuen. Bere lumajea nahastezina da: urdin kobalto-kolorekoa, hori-koloreko aurpegiko orbanekin eta laranja-koloreko tonu arin batekin. Dena den, ara urdinaren edo urdin-koloreko guakamaioaren izena ez da oso egokia, izan ere, kide bat gogoratzaren aritu da: Anodorhynchus glaucus, zein segurki agortuta baita.

Hiazinto arak palmondoetako fruitu lehorrak jaten ditu. Bere aho-aparatua elikadura mota horretara oso ondo moldatuta dago. Aspektu horretan beste psitaziforme batzuetatik ez da desberdintzen, beren erregimena ere fruitujalea delako.



Ale asko dauden aldeetan oso erreza da palmondoen artean hegaldatzu ikustea. Normalean taldeka joaten da, hiru-sei ale artean. Beren hankak eta oinak beltzak eta sendoak dira, eta oso baliotsuak dira palmondoen enberrari heltzeko, zeharka edo ahoz behera zintzilikatze gaitza da, bere moko indartsuaren bidez fruituak hartzeko.

Bere moko artikulatu eta indartsuari esker, Brasilgo intxaur-askolak ere apur ditzake baita gizon baten hatzak ere. Goiko masaila artikulatua da eta ez dago garezurrera soldatua beste hegazti batzuetan gertatzen den bezala, hori esker, masaila altxatzen du intxaurrak mokoaren barruan posizio egokia hartu arte; mihia lodia eta kailukara da, intxaurra heltzeko eta gelditze balio dute, bero beheko masailak intxaur-askola estutzen du apurtu arte.

Hiazinto guakamaioa palmondoetara ez ezik, alde zingiratsuetara ere joaten da, baina beti zuhaitz asko eduki behar dituzte: baso hezeetako bazterrak, galeriazko baso idorrak.

Beldurtzen denean airean hegaldia igotzen du txilio handiak emanez, zirkuluz hegaz eginez eta buztana kulunkatuz, amaitzean zuhaitzeko adabururik altuenean kokatzen da.

Emeak 2-4 arrautza artean erruten ditu. Arrautzak zuriak eta borobilak dira. Inkubazioak 28-30 egun dirau. Eklosioa gertatu ondoren, gurasoek -elkarrekin- txitak elikatzen eta zaintzen dituzte. Errunalditik lau hilabetetara, txitek hegaz egiten habia utziko dute. Loro gehiena bezala, hiazinto-ara monogamo da, gubxienez bere txitak garatzen diren bitartean. Beste espezie batzuetan gertatzen den bezala, bikotearen loturak elikaduraren eta elkarrekiko txukuntasunaren bidez indartzen dira.

Kopula egiteko prest dagoenean, emeak jarra makortua hartzen du arrak estaltzeko. Emea



estaltzeko, arrak emearen bizkarraren gainean mugimendu bitxiak, zapaltze-mugimenduak, erabiltzen ditu, beren helburua momentuz ezezaguna da.

Bildumagileek espezi honen bila joaten dira -gutiziatutako espeziea da-, batzuetan ale batek bakarrik 36.000 euro balio dezake. Urtero, legalki, 200.000 Hego Amerikako papagai esportatzen dira, eta legez kontrako moduan, askoz gehiago, baina azken hauek bidaia egitean hil ohi dira. Hiazinto-papagaiaren handitasunak eta sekulako bitxikeriak espezie gutiziatuenetarik bihurtzen dute, eta honek ez du balio bere kontserbazioarako.

Hiazinto-papagai basatia (*Anodorhynchus hyacinthinus*) munduan 2.500-5.000 ale bitartean geratzen direla estimatzen da. Zorionez, gehienak Brasilen bizi dira, eta, nahiz eta herri horrek ez duen berez panazea, ehiztari isilak ondo kontrolatzen dute.

Duela gutxi arte, AEBk munduko hegazti ederrenen eta konpainia-animaien kontsumitzaile handiena zen. 1991. urtean, milioi erdi hegazti inportatzen ziren, estatuan sartzen ziren legez kontrako animaliak kontuan izan gabe. Adibidez, urtero 250.000 loro inportatzen ziren (300 milioi dolar inguru), eta legez kontrako moduan 100.000 loro baino gehiago sartzen ziren (40 milioi dolar gehiago). Hegaztizainen, kontserbazionisten eta konpainia-animaien merkatarien arteko hitzarmenari esker, 1991. urtean Batzordeak lege berriak



aldarrikatu zituen -Exotic Bird Conservation Act- eta handik aurrera hegazti basatiak inportatzeko helburu batzuk bete behar ziren, esaterako, hazkuntza gaitibaldian, zoologikoak eta ikerketa zientifikoa. Lege berriaren ondorioz, konpainia-animaien dendek engaiamendu bat bete behar izan zuten: ezin zuten animalia basatirik saldu, bakarrik gaitibaldian hezita zeudenak. Aireko-konpainiek ere erabaki horiek bete behar izan zituzten: handik aurrera hegazti basatien kargamentuak ez zituzten onartuko, trafiko legala bakarrik onartuko zuten.

Papagaietarako zaletasuna ez da berria; izan ere, India zaharrean maitasunaren ikurratzat hartzen ziren. Kama Sutren arabera, loroen etxekotasuna menperatu behar du gizonak (baita 64 praktika gehiago ere). Erromatarrek papagaiak hitz egiten irakasten zieten, marfilez edertu ohi zituzten eta urre-koloreko kioletan sartu ohi zituzten. Batzuetan, papagaiak esklaboak baino garestiagoak ziren. Mende batzuk geroago, konkistatzaileek Amazoniara heldu zirenean, indioen maskotak ikusi zituzten hariduraz: guakamaioak. Gaur egun, UICNk "arisku larrian dagoen espezie" gisa hartzen du, eta bere Zerrenda Gorrian sartuta dago.



Tamaina: bere luzera osoa 64 cm-koa da.

Habitata: *nothofagus* baso plubialak eta sastraka subalpetarrak (1250 m-tik behera).

Banaketa: antzinean Zeelanda Berritik oso hedatua zegoen. Gaur egun, bi populazio bakarrik daude: Little Barrier eta Cold Fish uharteetan.

Lekualdaketak: sedentarioa da.



KAKAPOA

(STRIGOPS HABROPTILUS)

Zeelanda Berria jaioterri eskusiboa da. Hegazti mota batzuentzat, zeintzuk hegaz egiteko gaitasun osoa edo ia osoa galdu dutenak. Ezagunenak kiwiak (*Apteryx* sp.) dira. Hauek oso hegazti primitiboak dira, ostrukekin ahaidetarik, eta beren hegala muino txikiak dira. Moa erraldoiak ikusgarrienak ziren (Dinornis eta beste genero batzuk), espezie hauetako batzuek 3,5 m-ko altuera gainditzten zuten. Gizona agertu arte, hegazti hauek talde ondo dibertsifikatua eratzen zuten; bi familiak, 7 generok eta 30 espeziek osatzen zuten, haiek guztiek aurreko gorputz-adarrik gabe eta ia eskapula-gerriaren aztamarik gabe zeuden. Nahiz eta animalia hauen desagerpenean hondamendi naturalak izan ziren, ez dago zalantzarik gizonak bere zatia izan zuela arazoan: Moak maorien garaiokideak izan ziren. Duela milurtekoa, maoriek ehizatu ez ezik, 6 moa-espezieen larua ere erabiltzen zituzten. Gainera, larreak erretzen trebetasunak moen desagertena bizkortu zuten.

Hegalen murrizketaren etengabeko joeraren ezaugarriak harri-garriena ubikuotasuna da, izan ere, hainbat talde sistematiko-

tan ikus daitezke. Mende askotan zehar, Zeelanda Berriko uharteak beste uharteetatik isolaturik egon dira, eta horregatik harrapari autoktonorik ez zegoen. Hegazti mota asko, meha txaturik gabe eta ihes egiteko behartasunik gabe, pixkanaka-pixkanaka hegazteko gaitasuna galdu zuten. Eboluzio konbergente horrek moak, kiwiak, eta beste paseriforme batzuk sortu zituen, esate baterako, Stephen uharteko kotxina (gaur agortuta) eta takahea (*Porphyrio mantelli*) ere. Azken espezie hori kopetazuriek eta uroloekin ahaidetarik zegoen, eta nahiz eta agortua zegoela pentsatu, 1948. urtean berriro aurkitu zuten Hegoaldeko uhartean. Bere ondorengoak, nahiz eta bere hegala kontserbatu, estemoairen gila oso murriztu zeukan eta hegazteko gaitasuna galdu zuen.

Ondorengo hori kakapoa da, ez du ezer ikusirik papagaioekin: ez du hegazteko gaitasunik, gainera, bere morfologia eta ohiturak zeharo desberdinak dira. Gau hegaztia da, egunez, edozein sastraken azpian edo basoko lurzoruan zulatutako zuloan dago, eta eguzki-sarrera arte ez da irteten bere janariaren bila joateko. Beste papagaia ez bezala, lurlean denbora guztian ematen du, noizean behin enborretatik igotzen da eta adarren artean planeatze traketsak egiten ditu.

Bere estalketa-sistema ere desberdina da. Nahiz eta ohitura bakartiak eduki, neguaren amaieran, arrak alde zehatzetara joaten dira taldekatzera eta apeu karrankariak botatzen dituzte, hauek 3 km inguruko distantziatik entzun daitezke. Apeu hauetan sar daitezke: txistuak, karrankak, garrasi zorrotzak, marrankak eta orro burrunbatuak (txori zezenek egiten dituzten moduan). Arren zaratak emeak erakartzen ditu, hauek hareetara joaten dira eta aukeratzen duten arrekin kopulatzen dute. Kopulatu ondoren, zulo natural batean, egindako zuloan edo landaretza trinkoaren artean habia egiten dute. Emeak bakarrik arrautzak berotzen ditu. Normalean, bat edo bi arrautza zuri, batzuetan hiru, ezartzen ditu, eta emeak ere txitak zaintzen ditu. Adituen ustez, urtero kalapoen ugalketa ez da gertatzen, baizik eta bitarte irregularretan (1-3 urtetara); normalean uda lehorrak eta beroak pasatu ondoren, izan ere, garai hauetan hazien hazkuntza handiagoa da eta justu sasoi horretan haziak



behar dituzte txitei elikatzeko.

Kakapoaren elikadura era askotakoa da: zuhaixken fruitu asko, azalak, haziak, tuberkuluak, goroldioak, onddoak, belar-izpiak, artoa, eta zurtoinak. Normalean hostoak, artoak eta zurtoinak murtxikatzen ditu zukua ateratzeko eta landaretik material haritsuzko pilotak utzi ditu zintzilikatuz. Pentsatzen da Zeelanda Berrian kakapoa dela, Europan untxia dena: bere ohiturak jateko ordua, mokoaren moldaketa murtxikatzerak, eta 3 metroko luzera duten gordelekuak egiteko ohitura.

Gehien gustatzen zaizkion habitatak pago australa-baso euritsuak (*Nothofagus*) eta mendiko larreak ertzetik ibiltzen diren sastraka subalpetarrak dira. Antzinean, gau-papagaia Zeelanda Berriko alde handi batetik banaturik egon zen eta bere garrasi zorrotzek baso hezeak betetzen zituzten. Baina kolonoak agertu zirenean, beren arratoiak, katuak, hudoak, eta beste harrapari batzuk eraman zituzten, eta hondamendia bat-batean sortu zen. Honi gaineratu behar diogu hegazti honek ezin izan zuela hegaz egin, horregatik goiz lparaldeko uhartetik desagertu zen eta Hegoaldeko uhartetik parte handi batean. Gizonak ere hondamendian zeozer ikusi behar izan zuen, izan ere, koloniaren lehenengo urteetan hegaztia hurbiltzean, beldurrik gabe, makiladaz hiltzen zuten.

Hasieran, inoiz ez zegoen ale askorik, baina kolonizazioaren prozesua hasi zenetik askoz gutxiago geratu ziren. 1961ean, Zeelanda Berrian 100 kakapo bakarrik geratzen ziren. Gaur egun, bere jatorrizko banaketa-eremuan ez dago espeziearen ale basatirik, izan ere, 1987-1992 bitartean ale guztiak harrapatu eta Codfish, Maud eta Mana uhartera eraman zituzten. Denbora gutxira, nahiz eta hiru uharteetan sartutako harrapakinik ez egon, Mana uhartean sartutako



populazioa desagertu zen. Azken erroldan 47 ale bakarrik zeuden, eta haietatik 8 eme bakarrik ugaltzaile bideragarritzat hartu ziren. Horrela, eme gutxi geratzen dira ugaltzeko, eta gainera, beren ugalteta-tasa txikia da. Honek esan nahi du beren hurrengo biziraupena zaila izango dela, odolkidetasunaren eta aldakortasun genetikoaren galeraren ondorioz.

Kakapoekin lan asko egiten ari dira: aleen kokapen-lanak, kakapoaren biologiari buruzko ikasketa metodoak eta aspektu ezezagunak ezagutzea, baita bere kontserbazioa lortzea ere. Kontserbazioa lortzeko lehenengo neurria hazkuntza-garaian elikadura ematea da, eta fruituak emateko denboraldietan 5 denboraldietatik lauetan arrakasta izan du.

Zeelanda Berriko faunak bi papagai bikain ere ditu: Nestorra edo kea (*Nestor notabilis*) eta Kaka (*Nestor meridionalis*). Haien bitxikerien artean, arren poligamia gogotsua (batzuetan eme batzuekin kopulatzen dute eta beren aita-betebeharrak eme batzuekin batera tartekatzen dituzte) eta beren elikadura bitxia nabarmentzen dira (haratustela urratzen dute goiko masail kakodunaren bidez).

Haratustela jateko ohiturak ospe txarra eman zioten kea-ri, ematen zuen ardiak hiltzen zituela beren gantza klaskatzeko. Nahiz eta salaketa funtsean faltsua izan, hala ere, hiltzearen egon dauden animalien haragia eta gantza jaten dituzte -dudarik gabe-. Hala ere, animalia asko tiroka hil ziren beren ospe txarregatik, eta azkenean beren babesa osorik dekretatu zen. Salaketa bera pairatu zuen Kaka-k (maorien harrapakin gogokoena), baina animalia horrek janari desberdina jaten du: nektarra, basoko fruituak eta hostoak. UICNk "agortutako espezie basatitzat" hartzen du kakapoa eta bere Zerrenda Gorrian sartu du.






Tamaina: bere luzera osoa 68-70 cm-koa da.

Habitata: itsasokoa. Kostaldetik hurbil dauden uharteetan habia egiten du, baina oso gutxitan, lehorrean.

Banaketa: Hego Afrika eta Namibia (heldu sedentarioak), baina gazteak Gabon eta Mozambikera ailega daitezke.

Lekualdaketak: helduek sedentarioak dira. Gazteek, independentzia hartzean, koloniatik urrun joan ohi dira: ekialdekoak mendebalderantz; mendebaldekoak eta hegoaldekoak, iparralderantz, baina gehienak jatorrizko koloniara etxeratzen dira ugaltzera.

LURMUTUR HIRIKO PINGUINOA (SPHENISCUS DEMERSUS)



lerro berean bizi dena.

Ikerketa berrien arabera, Lurmutur Hiriko Pinguinoa Humboldtoko eta Magallaesko pinguinoekin erlasionatuta dago.

Beste espezie batzuek bezala, jantzi zuri eta beltza du, eta gainera, lumajea oso trinko, isolatzaile eta iragaitza da. Lumen artean, bata bestearekin gainjartzen dira. Ia gorputz osoa lumaz estalita dago, sabelaldean izan ezik, izan ere, alde hori arrautzak berotzeko erabiltzen dute. Dena den, bere lumen luzera Pinguino Antartikoekin konparatzen baditugu, askoz txikiagoa da.

Hazkuntza-garaia amaitu ondoren eta muda egin ondoren, pinguinoek lau hila-bete itsasoan igarotzen dituzte. Han, tamaina txikiko arrain pelagikoak jaten dituzte (1-30 cm-ko luzera), adibidez, Lurmutur Hiriko antxoak, eta Afrikako hegoaldeko uretan dauden beste arrain sozial batzuk.

Samalda txikietan taldekatzen dira arrantza egiteko (12 ale inguru). Hauek burua mugitzen dute haien artean jakinean gainean jartzeko eta gero aldi berean urperatzen dira. Batzuetan, txontxoroen bilaketa samurtzeko beste espezie arrainjale batzuekin elkartzen dira, esaterako, Lurmutur Hiriko zangekin eta ubarroiekin.

Emeak beti bi arrautza ezartzen ditu, baina eguzkiaren argi zuzenetik at. Inkubazioak 38 egun dirau, eta ez da harrizkoa urtaro berean emeak beste bi arrautza jartzea. Beti arrautza bat ezarri eta egun batzuk barru bestea.

Honek bi kumeen artean tamainaren desberdintasuna sortzen du eta independentzia lortu arte desberdintasun hori begi bistan geratzen da: txita zaharra eta handiena itsasora urperatzen denean, txikia habian geratzen da eta gurasoek elikatzen diote, tamaina egokia lortu arte independentzia hartzeko. Txitak berotzen dutenean, pinguinoek ez dute jaten, eta horregatik, txandak egin behar izan dituzte: bata habia dagoenean, bestea itsasorantz joaten da elikatzera. Humboldtoko pinguinoaren kasuan, bi eguneko txandakak dira. Kumeak jaiotzen diren bezain laster, txandakak zehatzak dira, baina haztean, bi gurasoak elkarrekin joaten dira itsasora, janaria bilatzera. Kumeen hazkuntza bukatu ondoren, muda osoa paira-tzen dute eta bukatzean independentzia har-tzen dute.

Espezi erditropikal honen ugalketa edozein urtarotan gerta daiteke, baina kolonien kokapen geografikoaren arabera ekintza ugaltzaila izango da: batzuetan oso gogotsua eta beste batzuetan ez hainbeste.

Europarrek ezagutzen zuten lehenengo pinguinoa Lurmutur Hirikoa izan zen. Vasco de Gamaren bidaiaren kronikan (1497-98), jadanik espezie hau deskribatua izan zen, eta urte batzuk geroago, Magallesen bidaiari, Pigafettaren kronikan (1519-22), berriro aipatzen da. Baina 1758. urtera arte itxaron behar izan zuen, Lineok zientifikoki deskribatu arte. Pinguinoaren izena, egia esanez, kolore antzeko hegazti batekin nahaste baten ondorioz sortu zen, baina esfeniszidoetatik oso desberdina da, gutxienez ebolutibo ikuspegitik: Pottorro handia edo Artikoko pinguinoa (*Alca impennis*), zein antzinean Ipar-Atlantikoan oso ugaria bai-



tzen. 1844. urtean desagertu zen, bere lumaxaren eta haragi koipe-tsua merkataritzagatik. Bere izen arruntak (pinguis) esan nahi du: gantza (J. del Hoyo, A. Elliot, J. Sargatal, 1992).

Azkenik, pinguinoen zenbakia desagertu edo murriztu da.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, pinguinoen olio erauzketak garrantzia handia hartu zuen (itsasotik ateratzen zirenean, urtero muda egiteko harrapaturik izaten ziren), eta horretarako, hil ondoren egosi egiten zituzten. Lurmutur Hirian, berriz, arrautza-biltzea izan zen garrantzi handiena zuena. Dassen uhartean (Hego Afrikaren aurrean), urtero Lurmutur

Hiriko pinguinoaren 300.000 arrautza inguru hartzen zituzten, eta beste batzuk hondatzen zituzten hurrengo biltzea ziurtatzeko (J. del Hoyo et al, 1992).

1969an arrautza-biltzea debekatu zen, baina gaur egun ere ilegalki egiten da (eskala txikian). 1990ean, 500.000-1.000.000 ale zeuden, eta gaur egun, ordea, 50.000-171.000 ale bakarrik daude. Beherakada hori antxoaren gehiegizko arrantza komertzialagatik izan da, eta orokorrean, bere harraparien harrapaketagatik. Baina beste kausa batzuk ere badaude: itsasoan petrolioaren isuria, arrantza egiteko sarien erabilera (non itota geratzen diren, erremedioirik gabe). Nahiz eta etengabe kanpainak egin, hegaztiak berrezkuratzeko eta petrolioaren arrastoa garbitzeko, emaitzak onak izan dira. 1970-1980 bitartean petrolioaren isuriek 7000 hegazti baino gehiago hil zituzten.

UICNeko adituek esaten dute, horrela jarraitzekotan, 70 urte barru, Lurmutur Hiriko pinguinoa desagertuko dela. Pinguino mota hau "espezie kalteberatza" hartuta dago.





Tamaina: bere luzera osoa 35-38 cm-koa da, baina arra 138 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.

Habitata: oihan lainotusetan (1200-3000 m-ko altuerara).

Banaketa: Mexikoko hegoaldean (Oaxakako estatuko ekialdean) Panamako mendebalderantz (Veraguas da ekialdeko muga).

Lekualdaketak: migrazio txikiak, oihanetako fruituen heldutasunaren arabera.

Hauek eskaera ekologiko zehatzak dituzte, eta beren sentibilitatea ingurunearekiko aldaketetan oso handia da (nahiz eta aldaketak txikiak izan). Oihan hauetako askok, aldaketarik gabeko baldintza ekologikoetan, Era tertziariotikbizirik jarraitu dute. Denboran, aparteko homogeneotasun horrek hegazti zaharren biziraupena eta gorputz-organizazio primitiboa utzi ditu. Jean Dorst ornitologo frantziarraren arabera, hau trogonidoen kasua da; antzinean, hauek Espainiarraino eta Frantziako hegoalderaino ailegatzen ziren, baina beti oihan hezezeleetan edo basoko galeria trinkoetan egon ohi ziren.

Trogonido hauetariko bat ketzala da, Erdialdeko Amerikan dagoen oihan hodeitsueta biztanlea.

Hegazti txikia da, etxe-usoaren tamaina du, baina arrak isats-

KETZALA

(PHAROMACHRUS MOCINNO)



luma oso luzeak ditu (metro bateko luzera baino gehiago) eta berde esmeralda-kolorekoak, itxura handiagoa ematen diotenak. Erdialdeko estal-lumak hain handiak dira, ezen pausatua dagoenean ia hegal osoa estaltzen baitzaio.

Mesoamerikako biztanle zaharrek Ketzala gurtzen zuten (Haizearen Jainkotzat hartuta). Quetzalcoatli-ekin erlazioan zuten, lumaztatutako sugea; Jainko horrek zibilizazioa eraman zuen Lurrera eta bere luma luzeak landaretzaren ikurrak ziren udaberrian. Kodexek eta Kolonaurreko eskulturek, noble aztekak erakusten dituzte buruan aparteko orrazkerak eramanez (Ketzal makoaren eta Xiuhtótl (Cotinga sp.) hegaztien lumaz egindak). Maiek eta Aztekek tribu basailuei kobratzen zieten zergan Ketzal sakratuaren lumak zati garrantzitsua ziren.

Tribu hauetako kideek arrak harrapatzen zituzten isats-lumak ateratzeko, gero kontu handiz aske utzi zituzten; inoiz ez zituzten hiltzen. Baina konkista espainiarra gertatu ondoren errito hori behin betirako galdu zen eta berekin hegazti sakratuaren begirunea ere galdu zen.

Kodex zaharren arabera, ketzalaren lumak ere monetatzat balio zuten. Tasatzaille ofizial batzuek luma horien balioa jartzen zuten, gero luma-azaoak (400-500 ale bitartean) etiketa batekin ibiltzen ziren, etiketan bere zenbaki zehatza eta prezioa zeuden. Lehenengo aldiz Francisco Hernándezek deskribatu egin zuen (1571-1577 bitartean), ohar asko hartu eta marrazki asko egin zituen Felipe II.-arentzat.

Marrazki horietan Mexikoko bizitza natiboa eta historia naturala agertzen dira. Nahiz eta lana -15 liburuki ilustra-

tu-oso handia eta interesgarria izan, Eskorialeko suteek lana-ekin bukatu zuten 1671n. Zorionez, Winlughbyk, Fernándezehartu zuen ketzalari buruzko informazioaren alde handi bat, kopiatu zuen oso zehazki. Gero, Londresen argitaratuko zuen bere "Ornithologiae" liburuan (1676. urtean). Gero, XIX. mendearen amaierara arte, ezer ez zen hegazti honi buruz jakin; garai horretan John Gouldék bere Trogonidae-en monografia ilustratua argitaratu zuen.

Ketzak hegazti fruitujalea da. Berak baterako eboluzioaren prozesu baten bidez, 18 ahuakate-espezieekin harreman estua eta emankorra egin zuen. Espezie gehienak *Ocotea* generokoa dira, bere ordezkarietarik batek Kanariar uharterko laurisilba populatzen du eta Era tertziariotik Mediterraneoan basoen erlikia da.

Baina elkarte hau, ketzala eta ahuakatearen baterako eboluzioa izan beharrean, elkarrekiko mendekotasuna da. Ahuakate gutxi egongo balira, ketzala desagertuko litzateke. Ahuakateak batera, ketzalaren eraginaren menpean daude, izan ere, hegaztiak fruitu osoa irensten du, gero bere haziak hedatuz eta horrela bere patua aseguratuz.

Ketzalak bere kumeei janaria ematen dienean, omogabeak eta omodun txikiak ere harrapatzen ditu.

Oihaneko zuhaitz handien adaburuetan bizi da, eta inoiz ez da uzten, izan ere, zuhaitzen artean oso ondo kamuflatzen da, bere lumajea eta hostoen kolorea berdina direlako.

Otsailaren amaieran, hazkuntza-garaian, oihaneko alde zehatz batean ketzalak bildu ohi dira. Han botatzen dituzten txorrotzioak bata besteein elkartzen dira sinfonia eztiara. Martxoaren hasieran, nota mingarri batzuek kopula adierazten dute: arrak bere eztei-geraldia egiten du. Gezian izango balitz bezala igo ohi da (50m-ko altueraino), gero zirkuluak eginez hegaz egiten du eta eguzkiaren izpiak bere lumetan islatzean, bere lumek esmeraldak ematen dituzte. Gero



makurtzen da, kurba liraina eginez; baina esan behar dena da, denbora osoan buztana oso ondo luzatua daramala atzerantz.

Batzuetan bikoteak, bertan behera utzitako okilaren habia handitzen du: zuloaren hondoan ganbera sakona zulatzen dute. Emeak urdin argi-koloreko bi arrautza ezartzen ditu, inkubazioan arrak laguntzen dio. Arrak berotzen duenean, bere aparteko buztana zulotik ateratzen zaio haizean kulunkatuz. Eklosioa 18-19 egun gertatzen da. Kumeek jaio bezain laster, eta bigarren asterako inguru, animalia txikiak jaten dituzte. Hurrengo astean lumak hezten zaie eta hegaz egiten hasi dira. Azken aste honetan arrak bakarrik janaria ematen die, baina une horretan lema-lumak apurturik dauzka eta honek esan nahi du arra edozein momentutan oihanaren barrura joango dela hiltzera.

Nahiz eta une horretan ketzala oihan birjina ugaria izan, ketzalen populazio osoa murrizten ari da: basoen bizkortutako hondamendiagatik, tranpa-jartzaileagatik...

Costa Rican egoera erakargarriagoa da: ketzalak asko daude, gainera Parke Nazional- eta Erreserba-sareak nahiko dira ahuakate mota asko mantentzeko.

UICNek "arisku txikian dagoen espezieztat" hartu du, izan ere Costa Ricako Parke Nazionalen eta Erreserbetanbizi direnak (Monteverde, Txirripo, Braulio Corillo) babesturik daude. Honi gaineratu behar diogu, kontserbaziorako programak egiten ari direnak emaitzak onak ematen ari direla.





Habitata: hosto iraunkorreko baso trinkoetako alde reliktetan bizi da (oinarrizko baso tropikala).

Banaketa: Maurizio uharteko hego-mendebaldeko goi-lautadako urrutiko aldeetan dago (Indiako Ozeanoa).

Lekualdaketak: sedentarioa da.

Maurizio uharteko hegazti endemikoa da arrosa-koloreko usoa. Gaur egun, uharteko hego-mendebaldeko goi-lautadako urrutiko aldeetan dago (Indiako Ozeanoa). Litekeena da antzinean, irla osotik hedaturik egotea, baina inoiz ez zen oso ugaria.

60ko hamarkadaren hasieran, agortuta zegoela pentsatu zen, baina bi urte geroago, Grand Bassinetik gertu uso-bikote bat ikusia izan zen, ordutik, maiz, uso mota hori ikus daiteke.

Dena den, uso eder horrek espezie bitxia izaten jarraitzen du, eta egoera basatian ikustea oso zaila da. Bere hondamendiaren arazoak ez daude argi, baina suposatzen da, beste espezieetan gertatu den bezala, gehiegizko ehiza, bere baso-habitataren hondamenak zelako ikusi behar dutela: elikadura-iturrien gutxipenagatik eta habiak egiteko lekuen

ARROSA-KOLOREKO USOA (COLUMBA MAYERI)




murrizketagatik ere.

Dodoa agortu ondoren oihanaren hondamendia etorri zen. Itsasontzigintzak, landare eta animalia inbasotzaileen sarreak oinarritzko baso ugariak suntsitu zituzten. Eredu handiena Maccabé-Bel Ombre Erreserban dago. Hantxe arrosa-koloreko usoaren azken ale biziak bizi dira.

Nahiz eta arrosa-koloreko usoa, legalki, babestua egon, oso zaila da urrutiko alde honetan lege hau betearaztea. Zorionez, duela urte gutxi,

Hegaztien Babesarako Nazioarteko Batzordeak (International Council for Bird Preservation edo ICBP) espeziaren ugalketaren programa hasi zuen Maurizon. 1894. urtean, Maurizioko gobernuak, Jersey Wildlife Preservation Trust-arekin eta ICBP-arekin hitzarmena sinatu zuen, ikerketa naturalisten programa nagusia egiteko. Programa horretan, arriskuan dauden Maurizioko beste hegazti endemiko batzuk sartzen dira. Gaur egun, espezie honen populazioa 75 aletan dago, haietariko batzuk gati-baldian egiten diren programetatik datoz, programaren baldintzen arabera hegaztiak naturan aske uzten dituzte. Kopurua hain txikia denez, oso zaila da aldakortsun genetiko mantentzea. UICN-ek bere Zerrenda Gorrian, "arrisku larrian dagoen espezie" hartzen du.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa 10 cm-koa da.

Habitata: sastraka xerofitikoan bizi da.

Banaketa: Kolonbiako iparraldera eta Venezuelako iparralde-ra ikus daiteke.

KARDINAL TXIKIA

(CARDUELIS CUCULLATA)



Hegazti honek dimorfismo sexual handia du: arren koloreak askoz biziagoak dira, emeek nabarkolore motela dute, eta alboetan dituen laranja-koloreko orbanak ia ez dira ikusten; gauza bera gertatzen da hegaletan eta buztanean dituen ilun koloreko pintzelkadekin. Arrean, berriz, pintzelada hauek beltz-beltzak dira, baita bere buruan eta ezarrietan ere, gorputza ostean gorri-gorria da. Antzinean, fringilido hau samalda erdinomadetan noraezean ibiltzen zen Hego Amerikako iparraldeko marratik, non sastraka xerofitikoak baitzeuden. Baina gehiegizko ehizak, kasu batzuetan, bere populazioekin amaitu zuen. Gaur egun, kardinal

txikiak aurkitzeko bere oinarritzko banaketa-aldeetara joan behar da. Zeharo desagerturik daude Gasperee, Monos eta Trinidad uharteetan, non antzinean oso ugariak izan baitziren. Hegazti apaingarria izateagatik, oso jarraitua izan zen, kanar-hazleek gutziazatu ohi zuten batez ere. Kanarioek duten hibridoak lortzeko gaitasuna erabili zuten hazleek, kanarioen lumajea hobetzeko (gorri-kolorea lortzen duten geneak aprobetxatuz). Nahiz eta teorikoki babesa legala egon, isileko ehizak tranpak erabiltzen dituzte animalia eder hauek harrapatzeko. Honek esan nahi du, beren populazioak hondamendian jarraitzen dutela.


Gaur egun basati-egoeran dagoen populazioa oso eskasa da (mila gutxi).

Karduelinoen subfamilia Amerikako hegoaldean oso dibertsifikatua dago. Espezie hauetariko bat kardinal txikia da, eta generoko espezie bakarra da agortzeko zorian dagoela. Beste bi espezieak: aurpegi horia duen siskina (*Carduelis yarrellii*) eta aurpegi horia duen siskina (*Carduelis siemiradzkii*) egoera larrian daude. UICN-ek kardinala "arriskuan dagoen espezie" hartzen du bere Zerrenda Gorrian sartuz, eta aurpegi horia duen siskina eta aurpegi horia duena "espezie kalteberatza" hartzen ditu.






Tamaina: animaliaaren luzera osoa 25 cm-koa da.
Habitata: kokondoetan habia egiten du eta zuhaixken artean bizi da.
Banaketa: Frégate uharteetan (Seychelle uharteetako artxipelagoan).
Lekualdaketak: sedentarioa da.



**SEYCHELLE UHARTEETAKO
ROBIN MIKA**
(*COPSYCHUS SEHELLARUM*)

Seychelle uharteetako Robin mikak Szozoaren tamaina du. Bere lumajea eta mikarena antzekoak dira: beltza, urdin edo berde-koloreko distira batekin, estal-lumak, berriz, zeharo zuri-zuriak dira. Ale gazteen lumajea desberdina da, izan ere, ez dauka distira berezirik. Bai gazteen bai helduen hankak, mokoa, begiak eta aurpegiaren larruak atxabitxi-beltz kolorekoak dira. Txori honek lurzoruan ez ezik, ondoko etxeetan ere jaten du. Dena den, maiz, basoko zuhaixka-formako geruzan -hildako hostoen artean- janaria bilatzen du. Termita hegaldunak, armaima handiak, ehunzangoak, eta musker txikiak jaten ditu. Bere ohiko jokaerazko jarribideen artean, buztanaren mugimendu espasmodikoa daukagu, izan ere, hegaztiak bere buztana jaitsi eta hedatzen du, gero astinaldi baten bidez altxatzen du; bestaldetik, erakusketa jarrera hau erabiltzen du: kizkurtutako lumekin, hegala baxuak, eta buztana lurzoruan ikutuz, albe batetik bestera burua gira biraka egiten du, baina beti moko gorantz zuzenduta. Agian jarrera hau bere kideerekiko larderiakoa da, baina oso gutxi dakizkigu bere

lurralde-senari eta soziabilitateari buruz. Bere ugalketa martxo eta apirila bitartean gertatzen da. Kokondoetako zuntzak, sustraiak, hostoak edo papera erabiltzen dituzte habia egiteko. Beti kokondo baten hostoa erabiltzen dute habia estaltzeko eta habiaren hondoan belarra finua jartzen dute. Emeak arrautza zuri edo urdin argi bakarra erruten du. Ikus daitekeenez, hegazti horren potentzia ugaltzailea ez da oso altua, agian horregatik hain bitxia da espezie hau. Munduko hegazti bitxienetakoa da animalia hau. Antzinean artxipelago granito-irla batzuetan bizi ziren: Mahé, Praslin, Digue, Marianne eta Félicité. 1940. urtean, Alphonse koralezko uharteetan bizi zen, hemen sartuta izan zen, baina denbora gutxitan desagertu zen, agian, katu basatiagatik. Gaur egun, hegazti hau Frégate uharteetan bakarrik aurki daiteke, non 50 ale inguru baitaude. Bere hondamenaren kausa nagusia, ugaztun harraparien sartzea izan zen, esate baterako, katuak eta arratoiak batez ere. Badaude beste kausa batzuk, baina ez dute hainbeste inportantziarik: mina arruntarekin (*Acrideres tristis*) lehiaketa, bera nahi gabe sartuta izan zen. Adituen ustez, ler-txuntxo itzainak (*Bubulcus ibis*) Seychelle uharteetako Robin miken kumeak jaten ditu. 1988. urtean, Bird Life International erakundeak espeziaren berreskuratzeko programa hasi zuen eta aparteko emaitzak lortu ditu: ordutik animalia honen portzentaia %82taraino ailegatu da. Populazioaren ale batzuk harrapatuta izan dira eta Arideko uhartera eramanak izan dira, kolonia berria lortzeko, eta modu horretaz espeziaren bizi-raupena lortzeko (gutxienez bi uharteetan). UICNek bere Zerrenda Gorrian, "arriku larrian dagoen espezie" hartzen du, izan ere, nahiz eta bere berreskuratzea benetako izan, oso eskasia izaten jarraitzen du eta zintzeko neurriak ez ematekotan, agian, epe ertainera desagertuko litzateke.



Tamaina: bere luzera osoa, 68-80 cm-koa da. Hego-luzera 185 cm-koa du.
Habitata: lakuetako eta ibai handietako ertzetan bizi ohi da, mangladietan batez ere.
Banaketa: Madagaskarko kostaldean.
Lekualdaketak: basikoki sedentarioa da.



**MADAGASKARKO PIGARGO
OIHULARIA**
(*HALIAEETUS VOCIFEROIDES*)

Madagaskarko pigargo oihularia Tamaina handiko harraparia da. Oso erraza da ezagutzea, bere hegaldi handiagatik eta zuri-koloreko buztan motzagatik. Buztana eta masailak salbu, zurixkak dira; lumaje gehiena marroi-kolorekoa da. Ale gazteek arrexka-koloreko jantzia dute, marroi-gorritzko kolorez pikardatuak. Lau urterekin espezie honen ezaugarria hartuko dute: buztan zuria. Madagaskarko lakuetan eta ibai handietan bakarrik bizi da. Dena den, gehien gustatzen zaion habitata mangladia da. Bere izena oso ondo justifikatuta dago, izan ere, egunsentian bikotea zirkuluz hegaldatuz eta beren



oihu zaratatsuak bota eginez ikus daitezke. Bere erpe irekien bidez ur-azalean arrainak harrapatzen ditu. Lehortegaraian, bere habia erraldoia tamaina handiko arbolaren gainean egiten du. Habia -ba-tzuetan urrunetik ikus daitekeela- adarrez eginda dago. Bere barruan emeak 1-2 arrautza zuri ezartzen ditu, baina normalean arrautza batek besterik ez du aurrera egiten. XX. mendean, Madagaskarko kostalde osotik hedaturik zegoen animalia motako hau. Alfred Grandier naturista eta irlako esploratzaileak ekialdeko kostaldean ere bere existentzia aipatu zuen, baina duela askotik, Madagaskarko pigargoak ez dira ikusten. 1930. urtean, ekialdeko kostaldetik oso hedaturik zegoen, Nosy Be eta Soalala artean batez ere, baita Kinkony lakuan ere. Baina 1960. urtean, alde berean oso bitxia zen ikustea, eta edozein ale egotekotan Mangoky eta Fiherenanaren artean ikus zitekeen. Geure hamarkadaren amaieran egindako espedizioak ez zuen emaitza onik izan, izan ere, P. Milán, J.J. Peter eta G.R. Raadrianasolo inbestigatzaileek (ORS-TOM eta CNRSkoak) ez zuten alerik aurkitu. Zoologek esaten zuten ehiztariak errudunak zirela, eta babesa askoz eraginkorragoa eskatzen zuten animalia honentzat. Gaur egun, Madagaskarko pigargo oihularia kostalde medebaldarreko lekuri helezinetan bizi da, eta hemen 50 bikote besterik ez dago. Neurri egokiak ez hartzekotan, epe motzean desagertuko da, izan ere, oraintxe bertan desagertzeko zorian dago. UICNk "arriku larrian dagoen espezie" gisa hartzen du.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa 117-120 cm-koa da. Berak 275 cm-ko hego-luzera du.

Habitata: alde arroksuetan, basoberan, sabanetan, belardietan, lur-eremu mendikatsuetan egon ohi da. Arroiletan eta haiz-pitarte mendikatsuetan habiak egiten dituzte, jeneralean kobetan eta pitzadura arroksuetan.

Banaketa: Los Padres (Gurasoak) Baso Nazionalan (Kaliforniako hegoaldeko kostaldeko mendikatean). Antzinean, Kolonia britaniarreko hegoaldeko Beheko Kaliforniako iparralderaino egon ohi dira.

Nahiz eta Kaliforniako kondorra, Alpeetako kondorarekin erlazioatua den (*Vultur griphus*), beste genero batekoa izan, tamaina handiko hegaztia da. Bere lumajea beltza da, bigarren mailako lumen tontorretan grisaz pikardatua, eta hegaleko beheko aldean zuri-koloreko bi triangelu handi ditu. Kuadroa betetzeko, burua eta lepoa bilusik daudela esan daiteke. Haien larrua laranja edo hori-grisaxka da, eta lepoaren bi alboetan gris argia eta purpura-kolorekoa ditu. Paparoaren azpitik laranja-kolorea berriro agertzen da (orban bilusi bat ematen duelarik). Hegaz egiten



KALIFORNIAKO KONDORRA
(*GYMNOGYPS CALIFORNIANUS*)



duenean, bere hegaletan zehar ibiltzen diren orban handiak erakusten ditu. Dena den, iltzeetan pausatuta denbora handia ematen du, lumak garbitzen edo eguzkitan egonean. Bere elikadura nagusia haratustela da, eta ibilaldi handiak egiteko gai da bilatzeko. Batzuetan, lehorreko urtxintxa txikiak ere jaten ditu.

Ugalketa-garaia otsailaren hasieran hasten da eta maiatzara arte joan daiteke. Kondor-bikotek bere habia egiten du arroka bilusiaren gainean, kobetan edo edozein pitzadura eskuraezinetan. Emeak arrautza zuri bakar bat ezartzen du. Inkubazioan arrak parte hartzen du, eta gutxienez sei aste dirau. Gurasoek txitari elikatzen diote urte oso bat bete arte, eta habian dagoen irtengunean hamar aste egon ohi da. Espezie

honen ugalketa-boterea oso mugatua da, izan ere, bi urtetan behin bikoteak arrautza-multzo bat lortzen du.

Munduko hegazti eskasienetariko bat da. Pleistozenoan zehar, Amerikako mendebalde guztietatik hedaturik zegoen espezie hau, eta milaka ale zeuden; dena den, Amerikako ugaztun handiak desagertzen ziren heinean, beren populazioak desagertzen hasi ziren. Ondorioz, bere banaketa-aldea murriztuta geratu zen, hau da, Kaliforniako hegoaldeko lur-marra estu batean.

Kaliforniako amerindiarrek kondorren luma luzeak erabiltzen zituzten beren "Kilts" zeremoniatsuei eta beren lumazko koroiei azken ukitua emateko. Dena den, kolonizatzaileak etorri zirenerako, jadanik kondorra animalia bitxia zen. Handik aurrera, bere beherakada etengabekoa gertatu zen: 1950. urtean, 60 ale inguru zeuden, 1964. urtean, 40 ale inguru, eta 1980. urtean, zortzi animalia basati bizirik geratzen ziren. 1986. urtean, bizirik geratzen zen azken eme ugaltzailea pozoinduta hil zen -berunagatik-. Dirudienez, ehizatarien munizioak errudunak izan ziren, izan ere, kondorrek ehizatutako animaliak jan ohi dituzte, eta batzuetan perdigoiz beteta daude. Beherakada honen zergatiak izan ziren, alde batetik isileko ehiza eta pozoitutako kamaten erabilpena,

bestetik, ganaduaren ustiapenaren murrizketa. 1986. urtean, erabaki bat hartu zen: azke zeuden ale guztiak harrapatuko zituzten, programa baten bidez gatiubaldian hezteko. Garai hartan, berriro naturara eramateko itxaropenari oso txikia zirudien. Neurriak izugarritzko eztabaidak sortu zituen: alde batetik, parte-hartze zientifikoa nahi dutenak, eta bestetik, harrapariak bere bilakabide natural -agorpena- jarraitu zuenak zeuden. Zorionez, programa egin ahal izan zen eta arrakasta izan zen. 1987. urtean, azken kondor bizi ezaguna, AC-9 izenekoa, harrapatuta izan zen eta Los Angeles zoologikora eraman da izan zen, hango taldea gehitzeko.

Handik aurrera, bizirik atera diren espeziaren ale bakarrak, Los Angeles eta San Diego zoologikoetan hazitak izan ziren. 1988ko apirilaren 29an, San Diego Wild Animal Parkean, Kaliforniako lehenengo kondorra -gatiubaldian hazita- jaio zen -Molloko du izena-. Gertaera errealitate bihurtzeko, ornitologo espezialista taldeak arrautza-askolatik irteten laguntzen zioten pintza baten bidez, izan ere, hegaztiak ez zuen indarririk arrautzatik irtetzeko. Jaio ondoren, zainketa gehiago behar izan zituen, horrela, eskularru-bontxongiloak erabili zituzten, zeinek amaren aurpegia errepikatzen zutena berari janaria emateko.

1989. urtean, oraindik ugalketa artifizialaren programaren arrakasta ikusgarriena izan zen: lau kondor jaio ziren, horrek esan nahi zuen, gatiubaldian 32 kondor zeudela. Ematen zizkieten zainketek aurrera jarraitzen zuten. Arrakasta hori lortuta, gatiubaldian zeuden populazioek denbora eman behar izaten zuten nahioak izateko eta berriro sartzea egin ahal izateko. Bitartean, gatiubaldian zeuden aleekin eta Andeetako kondorrek astapen-froga paraleloak egiten hasi zen. Lehenengo froga Chigazako Parke Nazionalan egin zen, Bogotako ekialdeko 50 km-ra. Oso garrantzitsua zen Kolonbian askapena egitea, izan ere, 1986. urtean, Andeetako kondorren kopurua 22 aletakoa izatera ailegatu zen. Chigazan askatatutako Andeetako kondorrek ere Kaliforniako zoologikoetako inkubagailuetan jaio ziren. Urte batzuetatik, Kolonbiako ornitologoek Kaliforniakoekin elkarrekin lan egiten zuten, espezie bieta-ko teknikak erabilgarriak izan daitezkeelako.



Hurrengo bi urteetan, 22 kondor gehiago askatu zituzten, guztiak artifizialki hazitak izan ziren: Chigazan 9 aske utzi zituzten, Puracé (Kauka Kolonbia) Parke Nazionalan zortzi ale, eta Txiles Erreserba indiarrean (Ekuadorreko mugan) bost kondor gehiago. Froga hauek guztiak oso onak ziren lehenengo askapenerako Gurasoen Baso Nazionalan, Los Angelesen ipar-mendebaldeko 120 km-ra. Han, artifizialki hezita izan ziren Kaliforniako bi kondor askatu zituzten. Hori esker, metodologia zientifikoa jarraitzea lortu zuten baita laguntza nabarmenagoa ere. Dirudienez, kondorren biziraupenerako aukerak handiagoak dira taldeka bizi badira, horregatik bi kondorak aske utzi zituztenean, Andeetako kondor-eme bi ere askatu zituzten. Haiek guztiak elkarrekin bizi ziren lehenengo urteetan. Aldez aurretik, Gurasoen Basoan, 13 Andeetako kondor gazte askatuta izan ziren, lehenengo Kaliforniako kondorrek askatuta izan zirenerako.

Kaliforniako kondor biak askatuak izan zirenerako, gatiubaldian zegoen populazioa 52 aletakoa zen, hau da, hasierako 27-ak bikoiztuta zeuden. Gainera, bikote heldu batzuk ugaltzen ari ziren eta kumeen arteko dibertsitate genetiko oso onuragarria zen. Beraz, askatutako kondorren heriotza goiztiarra izatekotan, baldintza guztiak betetzen ziren galerari aurre emateko. Honi gaineratu behar da, askatutako kondorrek naturara berriro sartzen zirenetik, oso kontrolaturik egon zirela, hau da, telemetriagatik, eta gainera artifizialki janaria ematen zieten, haiei perdigoizko berunak kalte ez egiteko, izan ere, batzuetan ehizatariak ehizatutako animaliak ez zituzten aurkitu eta animalia hildak perdigoiz beteta geratzen ziren, haragia pozoinduz.

Bersartzearen programaren arrakasta erlatiboa izan da, izan ere, nahiz eta hiru kolonia kontrolaturik berriro kokatua izan, aleak ez dira 85 ale gainditzen. Eta Gurasoen Basoan askatatutako 13 aleak desagertuak izan ziren. Haietatik bederatzhi hil ziren, eta geratzen zirenak berriro hartutak izan ziren eta Lion Canyonko Baso Nazionalera eramanak izan ziren eta han harrapatutako beste bost ale-rekin bizi izan ziren. Ez daki ondo, espezie berreskuratzea lortuko balitz eta desagertutako aleak berriz homituko balitz, hau dela kausa UICN-ek "arisku larrian dagoen espezieztat" hartu eta Zerreda Gorrian sartu du.





Tamaina: animaliaaren luzera osoa 73-84 cm-koa da. Berak 190-210 cm-ko hego-luzera du.
Habitata: mendi-mazelako basoetan, Mediterraneoko sasietan, istingadietan eta paduretan (baina beti basoak eduki behar ditu habiak egiteko). Gutxitan mendiko basoetan bizi da.
Banaketa: bertakoa da batez ere: Iberiar Penintsulako hego-mendebaldeko koadrantean.
Lekualdaketak: urrian, urteko goiztiarrak banaketa-aldeetako kanpoaldera joaten dira. Osterantzean, migratzaile partziala da.

Arrano inperial iberikoa tamaina handiko hegazti harraparia da. Bere itxura zeharo handientsua da. Tamaina eta itxura arrano beltzaren antzekoak dira, baina bere buztana motzagoa eta karra-tuagoa da, eta planeatzen denean, bere hegala horizontal-era kokatzen ditu.



ARRANO IMPERIAL IBERIKOA (AQUILA ADALBERTI)



Helduen lumajea oso berezia eta ederra da. Animalia hau nabar-beltzaxka kolorekoa da, lepoetan zuri-koloreko orbanak ditu, pileoan eta garondoan, berriz, hori argi-koloreko orbanekin. Mediterraneoko sas-trakako aire-superharrapakari nagusia da arrano inperial iberikoa. Nahiz eta arrano beltza baino basokoa goa izan, bere biotipoa basoetako, sas-trakadietako eta adar-arteko mosaikoa da. Bere azken babeslekuak Doñanaren pinudiak eta dunak dira, baita ahalpide pinudi extremadurar eta mantxatarak, Sierra Morenako eta Toledoko mendietako ehiza-barruti handiak eta Erdialdeko Sistemako ehun urtetik gorako pinudiak ere. Nahiz eta harrapakin nagusia untxia izan, bere elikadura oso aldakorra da. Esate baterako, erbiak eta beste ugaztun batzuk, hegaztien artean: ahateak, uroiloak, kopetazuriak, eperrak, usoak, antzarak, basoilo txikiak, eta korbidoak. Garrantzi txikia duten animalien artean igelak, muskerrak, sugeak, intsektuak eta batzuetan harratustela ere jaten ditu. Animalia hauek adaburuetan habiak eragiten dituzte, horretarako adar lehorak erabiltzen dituzte kanpotik, eta barrutik zuhaitzetako hosto freskuekin eta adarrekin tapizatzen dute habia. Bikote banak bere lurraldean habia batzuk ditu; modu horretara, urte bakoitza habiatik alda dezakete, baita bizkarroiak kentzea ere lortzen dituzte. Hasieran, emeak arrautza bat ezartzen du eta handik bi egunen buruan beste arrautza bat ezartzen du. Zuriak dira, gris-arrexkaz edo purpuraz orbainduta. Lehenengo

arrautzarekin inkubazioa hasten da, berak 43-45 egun artean dirau. Arrak janarien bila joan ez ezik, emeak arrautzak txitatzen lagundu ere egiten dio. Askotan, txita gazteena hiltzen da janarik ezagatik, izan ere, bere anaia handiagoa da eta janari guztia jaten du. Jaiotzean, txitak zuri-koloreko lumatxa kotoidunaz estalita daude. Bi aste pasa ondoren, lehenengo lumek hasteari ekiten diote. 55 egunean, txitak zeharo lumaztaturik daude eta jadanik, habiatik gertu hegaz egin dezakete. Txiten lumajea eta helduena zeharo desberdina da, nabar argi-kolorekoa da eta helduenak, berriz, oso bestelako jantzia du. Lehenengo mugimendu protekzionisten ahaleginei esker, 1966an arrano eta harrapari guztiak protekzio legalaren menpean geratu ziren. Dena den, 1953an sortu ziren Suntsipen-Batzordeek jokaera hondargarrietara eragiten zituzten eta honek arrano inperial iberiko-populazioei kalte handia egin zien, eta gaur egun ere errekuuperatu gabe direla esan dezakegu. Gauzak gero eta okerrago joaten ziren: alde batetik jazarpen zuzena, bestetik, onura zinegetiko duten ekosistemetako pozoidura arrunta, eta amaitzeko, untxiaren mixomatosiaren ezezko ondorioak eta baso autoktonoen hondamena. 1969an, Iberiar Penintsula osoan bakarrik 48 bikote zeuden. Nahiz eta 1980. urtean berreskuratzeko txiki bat nabaritu, 1994an populazioa berriro beherakada jasaten hasi zen, eta UICNren ikertzailen arabera, hurrengo hamar urteetan



Iberiar Penintsulako populazio osotik gutxitze-tasa %26koa izango da. Dirudie-nez, 500 ale egon arte, arrano inperial iberikoak arriskuan egoten jarraituko du. Egun, 130 bikote daude, eta horregatik, UICNk "espezie kalteberatzat" hartzen du bere argitaratutako Zerrenda Gorrian.





Tamaina: animaliaaren luzera osoa 86-102 cm-koa da.
Pisua: 4,5 kg arte pisatzen du.
Habitata: plubioihan reliktak.
Banaketa: Mindanao eta Luzon uharteetan (Filipinak) egon ohi dira. Antzinean, Samar eta Leyte uharteetan ere aurki daitezke.



ARRANO MONERA FILIPINARRA
(*PITHECOPHAGA JEFERYI*)


Arrano monera filipinarra munduko harraparik boteretsuena da, Hego-Amerikako harpiak ondoren. Bere itxura beldurgarria da. Bere buruan, luma altuak eta solteak dituen gandor bat ikus daiteke. Mokoia altua eta alboetan zantpatua dago.

Betidanik ehizatzen du basoko errezelaren azpian. Indartsua eta tamaina handiko harraparia da, eta bere morfologia oso ondo moldatua dago basoko adarren artean ehizatzeke. Bere hegala motzak eta zapalak dira, haiei esker abiadura handiena hartzea lortzen du edo bat-bateko jazarpen-hegaldia egiten uzten diote oihanpean. Bere buztan luzea lematzat erabiltzen du adarren artean biraketa azkarrak egiteko. Bere erpeak oso indartsuak dira harrapakinei gogorki heltzeko. Bere harrapakin nagusien artean tximinoak daude, baina bere harrapakin garrantzitsuenak galeopitekoak dira. Hauek tamaina ertaineko ugaztun planeatzaileak dira, lemureen antza samarra dute. Bestalde, bere tamaina handiak zerbido gazteak eta tamaina handiko hegaztiak harrapatzeko uzten dio.

Animalia honen adaburuen artean beren habiak eragiten dituzte. Arrautza bakarrik ezartzen du, azararen erdira inguruan, eta inkubazioak bi hilabete dirau. Emeak bakarrik txitak berotzen ditu, bitartean arrak ehizatzen du berarentzat. Txita jaio denean, arrak janariaren bila joaten jarraitzen du, emea, bere aldetik, txita zaintzen du eta harrapariak zatikatzen ditu. Hiru hilabete eta erdiko arranakumeak habia bertan behera uzten du, baina gurasoarekin jarraitzen du hilabete batzuetan zehar. Munduko harrapari bitxienetarikoa eta mehatxatuenetarikoa bat da.



Kalkulatzen da 250 ale baino gutxiago dagoela. Gaur egun, arrazo nagusia basoko habitataren hondamena da. Nahiz eta 1960-1970 urteetan espeziaren merkataritza-balioa izan, zorionez, 1963. urtean ICBPa (Hegaztiak Babesterako Nazioarteko Kontseilua) eta WWFa kanpaina bat hasi ziren espeziea babesteko. Hasteko, arranoaren biologia eta kontserbaketa estatusaren ikerketa zientifikoa egin zuten. Gero, gobernuari babes eraginkorragoa eta indartuagoa eskatu zioten. Gero, WWFa UICNarekin informazio-kanpaina hasi ziren, bildumagileei eta txapel-ehiztariari bertan geratzeko eta ospea kentzeko. Modu horretaz, munduko zoologiko nagusiek arrano bitxi hau edukitzeari uko zioten. Arrano filipinarraren Kontserbaziorako Programak (Philippine Eagle Conservation Program), Mindanaon finkatuta, politika berria jarraitzen du: uharteetako biztanleei sari ekonomikoak ematen dizkie arrano monera filipinarraren habia berriak esatekotan. Haiei esker, habia berriak ezagutu eta beharrezko babesa eman daitezke, gainera, arrisku dauden arrautzak kokapenagatik hartzen dituzte, eta haiekin Gatibualdian Ugalketarako Programa hasi dira. 1992an, gatibualdian hezten diren 13 ale naturara eraman zitzaizketen. UICNk "arrisku larrian dagoen espezie" gisa hartzen du, 2002. urtean argitaratutako Zerrenda Gorrian.



Tamaina: bere luzera osoa 50 cm-koa da.
Habitata: irlarik isolatuenetako alderik desagokienetan: baso bera, erdibasamortua eta labazko koladak.
Banaketa: Galápagos uharteak: Isabella, Santiago, Pinzón, Gutxitan, La Española irlan, Santa Fe uharteetan, Bartolomeon eta Fernandianan.

Galapagos uharteetako zapelatza eguneko harraparia da. Ez da zapelatza arrunta bezain handia eta lodia. Bere itxura hegaldian egiteko ordua eta bere ehiza-teknikak beste zapelatzezekoen antzekoak dira. Bere hegala zabalei eta buztan zabal eta borbilduari esker, zirkuluz planea dezake, termikak aprobetxatuz, eta, horrela, haizetik edo edozein adarretatik bere harrapakinaren gainetik eroriz. Bere harrapakin motak oso desberdinak izan daitezke, adibidez, hango edo sartutako karraskariak, itsas hegaztiak, iguana gazteak, beste narrasti batzuk, baita arrainak ere. Galápagos uharteetako zapelatza eta bertako bi hontzek Darwinen txonta eta suge autoktonoa (*Dromicus dorsalis*) jaten dituzte. Lurralde gehienetan zuhaitzik ez dagoenez, lurzoruan egiten dute habia, zapelatzen artean egoera hau oso bitxia da. Emeak bi arrautza ezartzen ditu, batzuetan hiru. Inkubazioak 30 egun inguru dirau. Bikoteen ugalketaren arrakasta %50ekoa izaten da, baina portzentaje baxu hau bikote isolatuentzat bakarrik da. Egiaitan, gutxienak dira. Guztiz monogamoak diren beste harrapari batzuekin alderatuta, Galápagos uharteetako zapelatza talde poliandrikoak eraten ditu, bi edo hiru arrek eme batekin harremanak dituztela. Talde honetako kideek lurralde berean bizitzeko joera dute urte batetik bestera.

Urte batzuetan zehar, ar helduen portzentajea emeenarena baino askoz handiagoa da, ia bikoitza, ondorioz, eme heldu asko ugaltu gabe geratzen dira. Ugal-taldeko ar guztiek lurraldea babesten, inkubazioa egiten, emeak eta txitei janaria era-

GALAPAGO UHARTEETAKO ZAPELATZA

(*BUTEO GALAPAGOENENSIS*)



maten lagundu ohi diote. Nahiz eta txitak aita desberdinak izan, aita guztiek txitak zaintzen dituzte. Aita hauek benetako laguntzaileak dira eta emearen ugal-arrakasta lortzen laguntzen diote. Zapelatz monogamoek, berriz, txika bakarra haztea lortzen dute (bestea desnutrizioagatik hil ohi da). Talde poliandrikoek, berriz, bi txita bizirik ateratzea lortzen dute. Emeen ikuspegitik, sistema poliandrikoa eraginkorragoa da, baina ez da gertatzen gauza bera ar guztiekin.

Lehenengo lumak agertetik bost hilabete pasatu ondoren, Galápagos uharteetako zapelatza gazteak jatorrizko lekutik botatuta izan ohi dira. Hiru urte geroago, beren lurraldea hartuko dute eta ugaltuko dira. Bitartean, beren heriotza-tasa lurraldea dutenena baino altuagoa izango da. Zenbat eta lehenago lurraldea lortu, hainbat eta aukera

gehiago izango du biziraupenerako. Modu horretaz, ugalketaren arrakasta ugalketaren murrizketa konpentsatzen da. Galápagos uharteetako zapelatza hemengo espezie endemikoa da. Irla hauek Ozeano Barearen erdi-erdian daude, Hego Amerikako kostaldeetatik 1000 km-ra, Ekuadorren azpian. Oso ondo ezagunak dira laborategi natural gisa hartuak izateagatik. Hemen, eboluzio biologikoa oso ondo ikas daiteke, eta dauden

espezie endemikoek garrantzi handia dute, esaterako, lehorreko eta uretako iguanak, dortoka erraldoiak, bertako pinguinoak, ubarroi apteroak, eta txonta endemikoen 14 espezieak (Darwinen teoriak ezartzeko balio zutela). Gaur egungo hegaztiak nahiko berriak dira eta kontinentean dauden hegaztietatik desberdintasun txikiak dituzte. Hegazti harrapari hauek uharteetara ailegatu zirenean, harrapakin asko zeuden eta ez zen zaila haiek harrapatzea, izan ere, inoiz ez zuten harraparik ikusi. Oso azkar artxipelagoko uharte guztiak hartzen zituzten eta goiz, espezie ugari bihurtu ziren. Gizonaren etorrera izugarritzko beherakada ekarri zien populazioei eta 1962. urtean, populazioen portzentajea oso baxua zen: ICBPren ustez, 200 hegazti inguru. Galápagos uharteetako zapelatzak UICNren Liburu Gorrian parte hartu zuen, agortzeko zorian zeuden espezieetatik, eta urte batzuk geroago, zeharo babesturik geratu ziren. UICNk "espezie kalteberatzat" hartzen du.



Tamaina: animaliaaren luzera osoa, 70-90 cm-koa da. Berak 200-240 cm-ko hego-luzera du.

Habitata: Kostaldeak, lakuak, ur-ibilbideak, istingadiak eta padurak.

Banaketa: Groenlandiako mendebaldean, Islandian, Europako iparraldean, erdialdean, hegoekialdean eta Asiako iparraldean aurki daiteke.

Lekualdaketak: migratzaile partziala da.

Animalia hau Europako arranoarik handiena da. Planeatzen duenean putzearen antza du, izan ere, oso handia da, bere mokoa oso indartsua da eta hegaldi handiak ditu.

Lau edo bost urte dituenean, lumaje heldua lortzen du, une horretan ezaugarri bat erakusten du, hau da, zuri-koloreko buztan kuneiformea.

Bi sexuak antzekoak dira, baina harrapari guztietan gertatzen den bezala, emea arrak baino handiagoa da. Bere elikadura arrainetan datza, horretarako, hurbiltzeko hegaldi isila egin ondoren, ur-azalean bere erpe irekiak erabiltzen ditu. Arrano arrantzaleetan bezala, bere aldeak arrantza egiteko, pelagikoak izan ohi dira eta beti kostaldeetatik urrun daude. Lurrean, tamaina erdiko ur-hegaztiak ere ehizatzen ditu, esate baterako,

BUZTAN ZURIA DUEN PIGARGOA

(HALIAEETUS ALBICILLA)



ahateak eta alzidoak, eta ez badago beste erremediorik, urperatzen direnean, beren bila joaten da eta horretarako batzuetan izugarritzko maniobrak egiten ditu.

Ez da harritzekoa ere, piraterian aritzen dela ikustea, normalean antxetekin edo arrano arrantzaleekin, horretarako behin eta berriro erasotzen die, ahituta utzi arte, orduan harrapakina aske uzten dute eta buztan zuria duen pigargoak hartzen du. Bere harrapakinaren

artean, ugaztun txikiak ere badaude, batzuetan kostaldeko ertzetik haratustelaren edo herrestatutako animalien gorpuen bila joaten da.

Hondartzako eta harri-lubetako hegaztia denez, oso bitxia da handik urruntzea. Barrualdean, ibaietako ertzetan edo laku handienean ale helduak bakarrik ikus daitezke. Asian mota honetako pigargo helduak aurki daitezke, baina habitat egokietan -2000 m-ko altuerara arte-.

Gazteak kostaldera ez daude helduak bezain loturik, eta habia


bertan behera uzten dute ugalketara hastera. Ez da harritzekoa itsasotik oso urrun ikustea. Epe hori urte asko luzera daiteke, eta leku batetik bestera -noraezean- ibili ohi dira. Batzuetan gazteen migrazio alderrai hauek beren banaketa-rangotik oso urrun daude, adibidez, Indiako iparraldera, Ipar Afrikara edo Riukyu uharteetara.

Helduak sedentarioak izan ohi dira, baina iparraldeko populazio batzuk neguan hegoaldera joaten dira ehizalurrealdean bila.

Araldia martxoan hasten da, eta bikoteak itsaslabarretako erlaitzetan eta ertzetatik zuhaitzik altuenetan bere izugarritzko habia egiten ohi du. Habiak 1,5-2 m-ko diametroa du eta 30 cm-1 m-ko altuera. Bikoteak urte batzuetan zehar, habia bera erabiltzen du eta bere tamaina urtez urte handitzen du. Martxoaren amaieran, emeak bi arrautza ezartzen ditu, oso gutxitan hiru. Arrautzen kolorea zurixka da eta beren tamaina, erlatiboki, txikia da (76 mm). Inkubazioak 36-42 egun dirau. Jaio berriek 70-75 egun bete arte, ez dute beren lehenengo hegaldia egiten. Bost edo sei urteko aleak ugaltzeko gai dira eta beren bizitza-luzera 20 urtekoa da.

Nahiz eta espezie horren banaketa-maila oso hedatua izan -alde Artikoa, Groenlandiako hego-mendebaldean, eta Aleutianak-, alde askotan beren populazioak oso murrizturik daude. Europan hegazti bitxia da, Norvegiako kostaldeetan eta Itsaso Baltikoan salbu. Dena den, antzinean ez zen harritzekoa, Italiako kostalde osoan zehar, Ipar Afrikako kostaldeetan, Espainian eta Kanarietan ikustea.

Duela gutxi arte, Sardianian eta



Korsikan habia egiten zuen eta 1950. urtera arte Kostalde Urdinean eta Italiako Ribieran. 1908. urtean, Britainia Handian espezie ugaltzaile bezala desagertu egin zen. Duela gutxi, Rhum uhartean eta Eskoziako kostaldeko mendebaldean (Hebrida uharteak) berriro sartuta izan zen espezie hau. Gaur egun bikote batzuek eskualde honetan beren habiak egiten dituzte.

1970. urtean, Baltikoko pigargoak desagertzeko zorian egon ziren, izan ere, poluzioaren kopurua oso handia izan zen eta helduen potentzial ugaltzaile murriztu edo kendu zuen. Hamarkada horren hasieran, Baltiko osoan bost txita bakarrik jaio ziren eta alde honetako aleak arrakatsuki murriztu ziren. Zorionez, Finlandiako gobernuaren ingurumen-kanpainak eta WWFarenak, DDT eta PCB-

en kopuruak itsasoan murriztea lortu zituzten. Ondorioz, 1988. urtean, Baltikoko alde finlandiarrean 43 txita jaio ziren. 1989. urtean, Finlandiako kostaldeetan 60 bikote ugaltzaile zeuden eta 100 bikote Suediako kostaldeetan. Baltikoko Errepubliketan eta Errusian pixkanaka pixkanaka pigargoak berreskuratzen ari dira eta Noruegan ez dago arazorik, Atlantikoko kostaldeetan populazio handia dago.

Bere banaketa-aldeko beste mutur batera, Txinan, hegazti bitxia da. Mantxuriako iparraldera eta Mongoliako barnealde batzuetan bakarrik habia egiten du.

UICNk "arisku txikian dagoen espezie" gisa hartzen du eta 2000. urtean argitaratutako Zerrenda Gorrian sartzen du.





Tamaina: luzera osoa, 91-110 cm-koa da. Berak 180-220 cm-ko hego-luzera du.

Habitata: plubioihanak, baso tropikalak, hezeak nagusiki, beheko lurrak edo 100-1800 m-ko batezbesteko altitua.

Banaketak: Erdialdeko eta Hego Amerika, Mexikoko hegoaldeko Argentinako Ipar-mendebalde-raino.

Segurki, munduko arrarorik bote-
retsuenak da, harpia, baita tamaina
handienetakoa ere. Dena den, Hego
Amerikan bizi den azipitridorik han-
diena, sendoena eta oldakorrena da.
Greziako mitologiaren arabera, har-
piak hegazti itsusiak ziren, airea
bezain azkarak, Estimafalietako zingi-
retan (Arkadia zaharrean) bizi ziren
eta gizonkia jaten zuten; horretarako
beren mokoak eta altzairuzko erpeak



erabiltzen zituzten. Tschudi zoolo-
goaren arabera, duela mende bat
mota honetako hegazti harpari
asko zegoen, eta nekazariak bel-
durtuta zeuden, izan ere, hain han-
dia zen bere tamaina eta trebetas-
una, ezen eskorta-hegaztiak ez
ezik, kolonoen txakurrak ere jaten
zituzten.

Izugarrizko harparia da; aragua-
toak, kaputxinoak eta beste tximi-
no handi batzuk harrapatzeko gai

da, eta arantzurde arborikolak eta nagiak adarretatik aterat-
zeko ere gai da. Bere ohizko harrapakinen artean daude:
koatiak, agutiak, oposumak, papagaiak eta suge handiak.
Zuhaitzen artean harrapakina lortzen ditu, adarren artean
sartuz eta bizkortasun harrigarrez mugituz. Bere gorputzaren
diseinua Filipinetako monera arranoaren antzekoa da
(*Pitheophaga jefferyi*) baita Afrikako koroatuen antzekoa ere
(*Stephanoaetus coronatus*). Hiru espezieek ezaugarri
berberak dituzte, esate baterako, hegala motzak eta zaba-
lak dira, buztana oso luzea da, azture erraldoiak izango bali-
ra bezala. Hegalen itxura bereziak haiei hegaldi azkarak eta
sakonak egiteko aukera ematen die, eta buztan luzea lema
eraginkorra da adarren artean biraketa azkarak egiteko.
Bere erpeak oso handiak eta boteretsuak dira -gizonaren
eskuak bezain handiak-, beren muskuluak eta azazkalak
beste harpari batzuenak baino askoz indartsuagoak dira.
Azken moldaketa hori oso garrantzitsua da, izan ere, nahiz
eta harparia zauritua egon, adarren artean desagertuko li-
tzateke eta ehiztaria bere altxor preziatua galduko luke.
Normalean, harpiak beren harparia harapatzen du usteka-
bean. Zuhaitzez zuhaitz joaten da hegaldi motzaz eta azka-
rez, planeatze txikiekin tartekatuz, eta entzumenaren eta



HARPIA (Harpia harpyja)

ikusmenaren bidez bere harpariak aurkitzen
saiatzen da. Aurpegiko gandorrari eta lumaje
kriptikoari esker, adarren eta azalen artean
ezkutatuta egon daiteke.

Indioek beldur dituzte, pentsatzen dute, diren
baino basatiagoak direla, gainera etxe-anim-
alientzat oso arriskugarriak direlako. Dena den,
indioek animalia hauek preziatzen dituzte
gauza askorengatik, adibidez, beren haragiaga-
tik, odolagatik, baita gorotzagatik ere. Pentsa-
tzen dute gaitza guztietarako sendabidea direla.
Hegalen eta buztanaren lumak ere apaingarr-
itzat erabiltzen dituzte, lepokoak eta diade-
mak egiteko, hauei lotzen dizkiete papa-
gaien, tukanen eta karazidoen lumak eta
tartekatzen dituzte.

Emea arra baino handiagoa da (9 kg arte pisa-
tzen du), eta batera bi arrautza zuri ezartzen
ditu. Gurasoek kumeei janaria ematen diete bi
urte osoan zehar.

Tranpa-jartzaileei ez zaie batere gustatzen, izan
ere, espezie honek ehiztariak ehizatzen dituz-
ten guakamaioak jaten ditu, eta horregatik tran-
pa-jartzaileek harpiak hiltzen dituzte. Ugalketa
egitea asko kostatzen zaienez, ale heldu baten heriotzak izu-
garrizko galera dakar; gainera, bikote bakoitzak kontrolatzen
duen lurraldea oso handia da, eta bikoteko animalia bat hiltze-
kotan, bizirik jarraitzen duenak abagune gutxi izango ditu berri-
ro parekatzeko.

Dirudienek, inoiz ez zen harpia asko egon, baina ez dakite
ziurtasunez zenbat ale dauden. Jakin badakite bere popula-
zioa beherakadan dagoela, eta kausen artean daude: Hego
Amerikako basoak eta oihanak izugarritzko aldaketak jasaten
ari direla, alde batetik deforestazioagatik eta bestetik zur-
ustiapenagatik. Bere jatorrizko habitataren desagertzea
bere populazioen isolatzea eta genetika-aldakortasuna txikia-
goa ekartzen du, eta hau epe luzean oso arriskugarria da edo-
zein espeziaren biziraupenerako.



UICNk "arisku txikian dagoen espezie" gisa hartzen du, baina
ikerketak gehiago egiten duten heinean, kalatogazio hori alda-
tzeko joera du, batez ere bere populazioa oso eskasia delako.
Posible da, horrela jarraitzekotan, "ariskuan dagoen espezie"
gisa izendatzea, eta Zerrenda Gorrian agertzea.



IZAN ZAITEZ

BILBAO WiFi+)))

Europako lehen WiFi
Sare Publikoak,
segurtasun-bermea
duenak, **zure gailuak
infektatuta badaude
abisatzen dizu eta
malwarea
blokeatzen du.**


Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



Erregistratu
www.bilbaowifi.eus-en eta
ezagutu gure
zibersegurtasuneko aholkuak.